



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko otsailaren 28a

14 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena. Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak onetsia (3. or.).
- Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra arautzen duen Foru Lege proposamena, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua premiatzen duena Soldadutzaren Ordezko Gizarte Zerbitzuko azpibatzaordearen jarduera bultzatzea dezan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (19. or.).
- Mozioa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua premiatzen duena Europako Batasunak kofinantzatutako programen artean zainzuriaren eta basanaren landaketa proposa dezan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (20. or.).
- Mozioa, Ameriketako zenbait estatutan izandako Espainiako hiritarren desagerpenei buruz Parlamentuak erabaki bat har dezala eskatzen duena, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (20. or.).
- Mozioa, gizarte babesa zuzpertzeari eskatzen duena, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak aurkeztua. Atzera bidalitako mozioa (22. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Gau-eskolak helduak euskalduntzeko lanagatik jasotzen duten dirulaguntza moduluari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egin (23. or.).
- Egulbatiko Jaurerriaren gaineko zenbait gairi buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (23. or.).
- Errioxako Agoncillon hondakin toxiko eta arriskutsuetarako ezar litekeen hondakindegia buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (24. or.).

- Lehentasunezko Ustiategiei buruzko Foru Lege proiektuaren biderapenari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
- Nekazaritza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean esnea uzteko finantzatutako Planari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
- Nekazaritzako ustiategiak hobetzeko laguntzak arautzen dituen 297/92 Foru Dekretuaren aldaketari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- Arrantza barrutien probetxamendurako ohiko tasari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- Irakaskuntzarekin zerikusia duten zenbait gairi buruzko galdera (gizarte bermeko moduluak, Hezkuntzako Goi Batzarraren aldaketa eta abar), Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egina (27. or.).
- Liburutegi batzuk ixteko aurreikuspenari buruzko galdera, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak egina (28. or.).
- Egiten ari diren ezpel adarren baso garbiketei buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egina (28. or.).
- Nafarroaren eta Akitaniaren arteko bi aldeko batzordearen sorkuntzari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyo Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (29. or.).
- Gure Komunitatean arrantza arautzen duen ohiko tasari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (29. or.).
- Ezpel mozketarako dagoen arauteriari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (30. or.).
- Euskaltegi publiko eta pribatuak ikasle kopuruari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (31. or.).
- Helduak alfabetatu eta euskalduntzeko ikastegi publikoen kostuari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (32. or.).
- Vianako eta Tuterako ikastolen legeztapenari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (32. or.).
- Joan den urtarrilean langabeziak izandako igoeraren arrazoei buruzko galdera, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak egina (33. or.).
- Garraiolarien grebaren eraginagatik izandako enplegu erregulazioaren eskaerei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (33. or.).
- Espetxeko gizarte zerbitzuen transferentziari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (34. or.).
- Aldarrikatu diren lekune naturalen babespeneko bazter-eremuen arautzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (35. or.).
- Babesturik edo arriskuan dagoen florari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (36. or.).
- Iruñerriatik barna iragaten denerako burdinbidea eta abiadura handiko trenaren ezartzeko lur-erreserbarako planari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (37. or.).
- Ehiza hesi eta itxituren kenketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (38. or.).
- Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (39.or.).
- Iruñea-Lizarran N-111 errepideko 12-13 kilometroen arteko eskubiko bazterbidearen egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).

B Sails:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena

EKONOMI, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK ONETSIA

Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen Foru Lege Proposamenari buruz onetsitako Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori 1996ko urriaren 23ko 55 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, emendakin hau defendatzen ahalko da:

10. emendakina, «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

Iruñean, 1997ko otsailaren 22a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ekonomiaren arloan dauden desoreka sektorialak erregulatu eta beharizan handienak dituzten klase sozialen onurarako errenta birbanatzeko oinarrizko tresna da dirulagunzen politikaren garapena

Laguntza hauek izaera juridiko eta ekonomiko hainbat irudi multzo biltzen dituzte, hala nola hobariak, bekak, laguntza planak, eta oro har, gizarte mailan erabilgarritasuna edo interesa duen

edozein xedetara fondo publikoak transferitzeko politika baten barruan zehaztu daitekeen oro.

Gaur egun, horien bilakaerak eta garrantzi koantitatiboak ehuneko handia jotzen dute Nafarroako Aurrekontu Orokorrek betetzeari.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren Erakunde Autonomoetan, dirulaguntzen erregimen ekonomiko eta finantzieroa, funtsean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 60 eta 61. artikuluetan ezarrita dago, eta bertan hatsapen arauemaile orokorrak zehazten dira eta laguntzak kobratu ahal izateko onuradunek bildu behar dituzten aurretiko hainbat baldintza ezartzen dira, hori guztia, laguntza konkretuen kudeaketa arautzen dituzten berariazko hainbat arau izatearen kaltetan gabe.

Laguntza publiko hauek izapidatu eta emateko jarduketa administratibo anitz izateak nahiz esparru arauemaile amankomun baten gabeziak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoetako dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeari buruzko alderdi orokorrak oinarrizko arau bakar batean ematea eskatzen dute.

Foru Lege honen helburua fondo publiko hauen kudeaketa eta kontrolaren zenbait alderditan aurrera joateko beharri erantzutea da, hatsapenak, kontzeptuak, irizpideak, eskumenak, betebeharrak eta erantzukizunak ezarri, laguntza ekonomiko hauek behar duten kontrola eta garrantzutasuna eta jarduketa administratibo orok inguratu behar dituzten eraginkortasun eta zintzotasun hatsapenak uztartuko dituztenak.

Foru Legea hogeita hamabi artikuluk, xedapen iragankor batek, xedapen indargabetzaile batek eta bi azken xedapenek osatzen dute.

1. artikulutik 4.era, biak barne, aplikazio eremua ezartzen da eta kontzeptua eta publikotasun, konkurrentzia eta objektibotasun oinarritzko hatsapen zuzentzaileak zedarrizten dira. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren Erakunde Autonomoetako laguntzak zein Europako Batasuneko fondoekin finantzatzen direnak arautzen dira, Europako Batasuneko Zuzenbidearen nagusitasuna gordez, eta horregatik Foru Lege honetan ezarritakoa euren sorreran Europako Batasuneko arautegiari erantzuten dioten dirulaguntzak emateko prozeduraren ordeztatik aplikagarri izanen da.

5. artikulutik 8.era, biak barne, laguntza publikoak emateko organo eskudunak, oinarri arauemaileen gutxieneko edukia eta onuradunen betebeharrak jasotzen dira.

9 eta 14. artikuluen bitartean emakidari buruzko prozedura orokorra finkatzen da, hasiera, izapitatze eta ebazpen faseei dagokienez. Azpimarratu beharrekoa da kudeaketa organoen erantzukizuna, onuradunak izan daitezkeenak aztertu, ebaluatu eta proposatzerakoan.

15. artikulua fondo publikoak entitate laguntzaileen bitartez eman edo banatzeko aukera ezartzen du, entitate horiek definituz eta prozesuan dituzten betebeharrak zehaztuz.

16. tik 21.era bitarteko artikuluek, biak barne, edozein jardueratarako ekarpen publikoak dituen mugak bildu eta ordainketa, justifikazioa eta, hala badagokio, laguntzen aplikazioaren egiaztatze materialaren erak finkatzen dituzte. Halaber, dirulaguntzen itzulketa zehazten da, fondoek gainera baldintzen edo oinarri arauemaileen edozein ezbetetzeren aurrean.

22. artikuluan ezartzen da posible izanen dela dirulaguntzak konpentsatzea onuradunak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin dituen zorrokin.

24 eta 26. artikuluen bitartean kontrol prozedurak adierazten dira, eskudun diren organoek aplikatutakoak, kudeaketari dagozkion kontrolak zein kontuhartzaitzak eta finantzari buruzkoa ere aipatuz.

27. artikulua Ogasun Publikoaren aurkako delituen gainera zantzuen kasuetan egin beharreko jarduketari dagokie.

28tik 32ra bitarteko artikuluetan arau-hausteen eta zehapenen araubide orokorra arautzen da.

Azkenik, ezartzen da Foru Lege hau indarrean sartu baino lehenago emandako xedapenen babesean egindako deialdiei dagozkien dirulagun-

tzak, horietan ezarritakoaren arabera zuzenduko direla.

I. Kapituluak Xedapen orokorrak

1. artikulua. Aplikazio eremua.

Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen emakida, kudeaketa eta kontrolari buruzko erregimen orokorra Foru Lege honek eta honen garapenerako erregelamenduxedapenera arautuko dute, berariazko lege edo erregelamendu ezean.

2. artikulua. Kontzeptua.

Foru Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira dirulaguntzat:

a) Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak eta horren Erakunde Autonomoek fondo publikoen gainera egindako edozein erabilera, hau dohainekoa eta gizarte-erabilgarritasun edo interes sozialeko jarduerak bat sustatu edo helburu publiko baten lorpena bultzatzeko bada.

b) Europako Batasuneko fondoak, aurreko idatzian azalduriko jarduerak edo xedeak osorik edo hein batean finantzatzen badituzte.

Azken hauei dagokienez, Foru Lege honetan xedatutakoa Europako Batasuneko arauetan edo horiek garatu edo bertaratzeko egindako arau nazionaletan ezarritakoaren osagarri gisa erabiliko da.

3. artikulua. Hatsapen zuzentzaileak.

Dirulaguntzen emakida publikotasun, konkurrentzia eta objektibotasun hatsapenera egokituko zaie.

4. artikulua. Salbuespenak.

1. Publikotasuna ez da beharrezkoa izango dirulaguntzek esleipena izendaturik baldin badute Nafarroako Aurrekontu Orokorretan edo horien emate eta zenbatekoa lege-xedapen baten ondorioz eskatu ahal bazaizkie Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari edo horren Erakunde Autonomoei.

2. Halaber, eta salbuespen gisa, publikotasun eta konkurrentzia hatsapenak ez dira beharrezkoak izango, dirulaguntzaren xedeagatik hartzailea zehazturik badago eta beste edozein interesatutako parte hartzeko aukerarik ez badu. Kasu honetan, dirulaguntzaren erabilgarritasuna, gizarte-interesa edo helburu publiko baten lorpena arrazoitu beharko dira, baita aipatu hatsapen zuzentzaileak aplikatzeko ezintasuna justifikatu ere.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren arabera emandako dirulaguntzak lankidetzak-akordio edo hitzarmenen bidez gauzatu dira; horiek dirulaguntzei buruzko oinarri arauemaileak ezarriko dituzte, Foru Lege honetan jasotako aurreikuspenekin bat, publikotasun eta konkurrentzia hatsapenei dagokienez izan ezik.

Hala ere, eta dagokion emakida-ebazpenean arrazoituz gero, salbuetsi ahal izango da aipatu akordio edo hitzarmenak ezartzea, organo emaileak, dirulaguntzaren beraren inguruabarrak direla eta, egokitzat jotzen dituen banakako kasuetan. Horrela izanez gero, emakida-ebazpenak berak dirulaguntzari aplikatu beharko zaizkion arautze-baldintzak ezarriko ditu, Foru Lege honetan ezarritakoarekin bat.

II. Kapituluak. **Dirulaguntzak ematea**

5. artikulua. Eskumena.

1. Nafarroako Gobernuako Kontseilarien eta Erakunde Autonomoen Zuzendari-Kudeatzaileen eskumena da dirulaguntzen emakida, euren eskumenen esparruan eta horretarako alde aurretik aurrekontu-kontsignazioa baldin bada, eskumen hori eskuordetzeko ahalmenaren kalterik gabe.

2. Aurreko atalean ezarritakoa gora behera, Nafarroako Gobernuaren erabakia beharko da kapital dirulaguntzen emakida baimentzeko, onetsi behar den gastua ehun eta berrogeita hamar milioi pezeta baino handiagoa denean. Nafarroako Gobernuaren baimenak berarekin ekarriko du dagokion gastuaren onespina.

3. Emakida, dirulaguntzaren helburua edo izaerarekin bat, lehiaketa bidez egiten bada, ebazpen-proposamena loteslea izango da eta organo kolegiatu batek egin beharko du; organo horren osaketa oinarri arauemaileetan ezarriko da.

6. artikulua. Aurretiko jarduketak.

1. Ezingo da dirulaguntzak emateko prozedura hasi, alde aurretik organo eskudunak dirulaguntzari buruzko araua edo deialdia eta dagozkion oinarri arauemaileak ezarri ez baditu, horiek aurretik izatearen kasuan salbu.

Aurreko lerroaldean azaldutako betebeharretik Foru Lege honetako 4. artikuluan aipaturiko dirulaguntzak daude salbuetsiak.

2. Dirulaguntzei buruzko deialdiek dagokien gastua aplikatzeko aurrekontu-kredituen berariazko aipamena jasoko dute.

Aurrekoa gora behera, modu arrazoitu batez deialdi batek aurrekontu-ekitaldiari aurrea hartuko balio eta aurreko lerroaldean aipaturiko kredituak ezagutuko ez balira, horretarako Nafarroako Aurrekontuetan gaitzea aurrekusten direnen aipamen generikoa egingo da, dirulaguntzak ematea ekitaldi horretan kredituak izatera baldintzapez.

3. Dirulaguntzaren izaerak ondorengo ekitaldiarako eragiten baditu gastuak, horietarako baimena Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 41. artikuluan ezarritakoaren arabera emango da.

4. Aurreko atalean ezarritakoaren ondorioetarako, ez dira urteanitzeko gastutzat joko urteroko deialdia izaten duten dirulaguntzak, horiek hein batean bi aurrekontu-ekitaldi ukitzen badituzte.

Kasu honetan, ondorengo aurrekontuaren kargura harturiko gastu-konpromezuak ez du gaindituko aurreko ekitaldia horretarako kontsignaturiko zenbatekoa.

7. artikulua. Oinarri arauemaileak.

1. Dirulaguntzak emateari buruzko oinarri arauemaileak, gutxienez, honako puntu hauek bilduko dituzte:

a) Dirulaguntzaren xedearen definizioa, dirulaguntzaren xede den erabilgarritasun publiko edo soziala aipatuko delarik.

b) Dirulaguntzaren zenbatekoa edo bere banakako kopurua zehazteko era, beti ere alde aurretik zehaztu ahal baldin bada.

c) Onuradunek dirulaguntza erdiesteko bete beharko dituzten baldintzak eta horiek egiaztatze-ko era eta, hala badagokio, irauten beharko duten aldian.

d) Eskabidea aurkeztu eta eskatutako baldintzak egiaztatze epeak.

e) Modua, lehentasunak, irizpideak eta, oro har, dirulaguntza emateak izan behar dituen ezauzgarriak.

f) Hala badagokio, Foru Lege honetako 5. artikuluan aipatu den organo kolegiatuaren osaketa; organo hori gutxienez, dirulaguntzaren kudeaketarekin zerikusia duten hiru pertsonak osatuko dute.

g) Emakida ebazteko organo eskudunak izango duen epea.

h) Foru Lege honetako 15. artikulua aipatzen dituen pertsona juridikoek bete behar dituzten kaudimen-baldintzak.

i) Onuradunaren betebeharrak eta, hala egokituz gero, Foru Lege honetako 15. artikulua aipatzen dituen entitate laguntzaileenak, baita euren betebeharrak ez betetzeak eragindako ondorioak ere.

j) Onuradunak, edo entitate laguntzaileak, dirulaguntza emateko xedea bete dela eta hartutako fondoak erabili direla justifikatzeko dituzten epea eta modu balioduna, egindako gastuari zein horien ordaintzeari dagokienean, Foru Lege honetako 19. artikuluan ezarritako mugara bitartean.

k) Dirulaguntza ordaintzeko era eta epeak eta, beharrezkoa izatera, onuradunei eskatzen ahal zaizkien bermeen era eta kopurua, emandako dirulaguntzen gainean ordainketa-aurrerakinak aurreikusten direnean.

l) Interes publikoen alde beharrezkotzat jo daitezkeen berme-neurriak nahiz, hala egokituz gero, emandako dirulaguntzak azertu behar diren kasuak.

m) Administrazioak berak, bestelako Administrazioek, bestelako erakunde publiko edo pribatuak edo partikularrek, naziokoek zein nazioartekoek, emandako dirulaguntzekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna, horrela erabakiz gero.

n) Departamentu emaileak edo Toki Administrazio Departamentuak entitatearen egoera ekonomikoari buruz eta dagokion parte finantzatzeko duen gaitasunari buruz egindako txostena espedienteari eranstearen beharra, toki entitatei hein batean euren kargura finantzatu behar diren obrak egiteko dirulaguntzak ematen zaizkien kasuetan, beti ere obrari buruzko proiektuaren zenbateko osoak hogeitaz milioi pezeta baino gehiago jotzen badu.

ñ) Oinarri arauemaileak eta deialdiaren kontra aurkeztu daitezkeen errekurso administratiboak.

2. Oinarri arauemaileen onespenez proposatzen gorpuztuko duen espedienteak horiek Zuzenbidearekin bat etortzeari buruzko txosten juridikoa izan beharko du.

3. Arauak, eta, hala egokituz gero, dirulaguntzei buruzko deialdiak eta euren oinarri arauemaileak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, Foru Lege honetako 4. artikuluan ezarritakoak izan ezik.

8. artikulua. Onuradunak.

1. Dirulaguntzaren onuraduntzat joko da fondo publikoak jasotzen dituen, hura ematea arrazoitu zuen jarduera burutu behar duena edo dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran dagoena.

2. Hona onuradunaren betebeharrak:

a) Dirulaguntza ematea arrazoitzen duten jarduera burutzea edo jokabidea hartzea.

b) Jarduera burutu dela edo jokabidea hartu dela justifikatzea, baita dirulaguntzaren emakida edo gozamina mugatzen dituzten betekizun eta baldintzak bete direla ere.

c) Horretarako eskumena duten organoek egindako edozein egiaztatze-jarduerari makurtzea, emandako edo hartutako dirulaguntzei dago kienez.

d) Organo emaileari edo, hala badagokio, entitate laguntzaileari gaitzitzea helburu berbera duten beste dirulaguntza batzuk eskatu edo lortu direla.

e) Nafarroako Ogasun Publikoarekiko betebeharrak bete direla egiaztatzea, dirulaguntza kobratu aurretik eta Ekonomia eta Ogasun Kontseilariak ezarriko duen eran.

f) Indarreko arautegiaren arabera kontabilitatean edo erregistro-liburuetan erregistratzea jasotako dirulaguntzaren kobrantza, indarra duen legeriaren arabera haietaz arduratzera beharturik egonez gero.

3. Aurreko ataleko e) letran aurreikusitako betebeharra gabetu ahal izango da ezarriko diren kasuetan.

III. Kapitulua

Dirulaguntzak emateko jardunbidea

9. artikulua. Hasiera.

1. Dirulaguntzak emateko jardunbidea ofizioski edo interesatuaren eskabidez hasiko da; interesatuak dagokion arauak edo deialdiak ezarritako eredu eta sistema normalizatuaren arabera egin beharko du eskabidea.

2. Eskabideari dirulaguntza ezarritako arauan edo horri buruzko deialdian zehazturiko dokumentu eta informazioak gaineratuko zaizkio.

3. Eskabideak aurreko ataletan azaldutako baldintzak betetzen ez baditu, organo eskudunak eskatuko dio interesatuari, gehienez ere hilabete epean zuzentzeko, eta adieraziko dio zuzentzen ez badu eskabidea bertan behera utzitakotzat joko dela eta espediente beste izapiderik gabe artxibatuko dela.

10. artikulua. Izapidatzea.

1. Dirulaguntzak emateko jardunbideen izapidatzea eskudunak ebazteko izendatuko duen organoari egokituko zaio.

2. Organo izapidegileak ofizios burutuko du eskabideen ebaluaketa, arauetan edo oinarri arauemaileetan ezarritako balorazio-irizpide, era eta lehentasunekin bat, eta ebazpen proposamena idatziko du.

3. Deialdiak horrela aurreikusiz gero, eskabi-deak ebaluatu ondoren, organo izapidegileak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du eta deialdi horretan ezarritakoaren eran interesatuari gaztigatuko dio, alegazioak aurkezteko hamar eguneko epea emango zaiolarik.

Interesatuak azaldutako alegazioak aztertu ondoren, organo izapidegileak behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta bertan bere ebaluaketa eta hura egiteko erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuko ditu.

Dirulaguntzak emateko espedienteak organo izapidegilearen txostena bilduko du eta bertan onuradunek dirulaguntzak eskuratu ahal izateko behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko da.

11. artikulua. Ebazpena.

1. Ebazpen-proposamena ikusi ondoren, organo eskudunak dirulaguntzen emakida ebatziko du.

2. Ebazpena arrazoitua izango da, azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 54. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta beti ere hartutako ebazpenaren oinarriak egiaztatu beharko dira.

3. Ebazpenak, gutxienez, dirulaguntza ematen zaien eskatzailea edo eskatzaileen zerrenda jaso beharko du eta, hala badagokio, berariaz jasoko da gainerako eskabideen gaitzespena.

12. artikulua. Ebazpenaren jakinarazpena.

Jardunbidearen ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie azaroaren 26ko 30/92 Administrazio Publikoen Araubide Juridiko eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legeko 58. artikuluan ezarritako eran. Arau horretako 59.5. artikuluan jasotako kasuetan jakinarazpena egin ahal izango da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearen bidez edo iragarki-oholetan edo dirulaguntzaren arau erregulatuarekin edo horri buruzko deialdian zehaztuko den komunikabidearen bitartez.

13. artikulua. Ustezko ezespina.

Dirulaguntzaren arau erregulatuarekin edo horri buruzko deialdian jardunbidea ebazteko ezarritako gehieneko epea berariazko ebazpenik

burutu gabe iragan badu, eskabidea ezetsizat joko da.

14. artikulua. Errekurtsoa.

Dirulaguntzari buruzko arauak edo deialdiak berariazko edo ustezko ezespinen kontra aurkezte bidezkoa izango den errekurtsoa zehaztuko dute.

IV. Kapitulua **Dirulaguntzen kudeaketa.**

15. artikulua. Entitate laguntzaileak.

1. Dirulaguntzen oinarri arauemaileek onuradunei fondo publikoen emate edo banaketa entitate laguntzaile baten bitartez egin dadila ezarri ahal izango dute.

Horretarako, entitate laguntzaile izan ahalko dute Foru Komunitateko elkarteak edo ente publikoak, nahiz nahikoa kaudimen-baldintzak betetzen dituzten bestelako pertsona juridikoak.

2. Entitate laguntzaileak emailea den Departamentu edo Erakunde Autonomoaren kontura jardungo du, dirulaguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako, baina dirulaguntza inolaz ere ez da hartuko bere ondarearen osagaitzat.

3. Hona entitate laguntzaileen betebeharrak:

a) Jasotako fondoak onuradunei ematea, dirulaguntzaren arau erregulatuarekin ezarritako irizpideekin bat.

b) Hala badagokio, hura emateko erabakiorrak diren baldintza edo inguruabarrak bete eta gauzatu diren egiaztatzea.

c) Jasotako fondoak erabilpena justifikatzea Departamentu edo Erakunde Autonomo emailearen aurrean eta, beharrezkoa izatera, onuradunek aurkezturiko justifikazioa aurkezte.

d) Horretarako eskudunak diren organoek, jasotako fondo publikoei dagokienez, egin dezakeen edozein egiaztatze-jarduketari men egitea.

e) Itzultzea, osorik edo hein batean, horrela erabakiz gero eta bidezkoa bada, eta edozein jakinarazpen edo parteei ezarritako baldintzen edo betebeharren ezbetetzeren aurrean, banatze-ko jaso dituzten fondo publikoak.

16. artikulua. Aldaketa, konkurrentzia eta muga.

1. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketak eta, edonola ere, bateraezinak diren dirulaguntzen lorpena aldeberean gertatzeak emakidari buruzko ebazpenaren aldaketa eragingo du.

2. Onuradunak jarduera bera egiteko emandako dirulaguntzak bateragarriak baldin badira, horien zenbatekoak ezingo du inolaz ere jo onuradunak garatu behar duen jardueraren kostua baino gehiago, soilik edo Administrazio beraren, beste Administrazio Publiko batzuen, beste ente publiko edo pribatu batzuen edo partikularren dirulaguntzekin batera.

17. artikulua. Ordainketa.

1. Oro har dirulaguntzak euren emakida eragin zuten jarduera burutu dela edo jokabide hartu dela egiaztatu ondoren ordainduko dira.

2. Akreditazio honi darraion ordainketa egin ahalko da aldi batez, jarduera amaitzean, edo zatika, justifikazio partzialen bitartez, dirulaguntzak arautuko dituzten berariazko arauetan ezarritako baldintzetan eta betekizunekin.

3. Nafarroako Foru Komunitateko elkarte publikoak eta ente publikoen jardun-gastuak eta ohiko inbertsioak finantzatzeko dirulaguntzak, oro har, hiruhilabeteka eta hiruhileko natural bakoitzaren barruan ordainduko dira. Nafarroako Aurrekontu Orokorretan asignazioa izendaturik duten dirulaguntzen ordainketa, aplikatu behar zaien arautegiko aurreikuspenen arabera egingo da, edo bestela, aurreko leerroaldean ezarritako eran.

4. Dagokion organo kudeatzaileak erantsikodio ordainketa-proposamenari edo ordainketaren justifikazioari, bestela, dirulaguntzaren aurretiko ordainketa izan bada, dirulaguntza emateko izan diren helburuak zein hori kobratzeko eskubidea ematen dioten baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena.

18. artikulua. Dirulaguntzen aurrerapena.

1. Bakarrik izango da bidezkoa emandako dirulaguntzaren gaineko ordainketa aurreratzea dagozkion oinarri arauemailetan berariaz aurrerakosten baldin bada, horiek ezarritako muga, baldintza eta, hala egokitzuz gero, bermeekin.

2. Nahitaez zehaztuko dira bermeak, aurrerakinak hamar milioi pezeta baino handiagoak diren kasuetan, onuraduna Administrazio Publiko bat den kasuan salbu.

19. artikulua. Fondoan aplikazioaren justifikazioa.

1. Onuradunek justifikatu beharko dute, organo emailearen aurrean edo, hala badagokie, entitate laguntzailearen aurrean, eskuraturiko fondoak dirulaguntza emateko izan zen xederako erabili direla, dagokion arautegian edo oinarri arauemailean ezarritako era eta epeetan.

2. Jardueraren izaerak bide emanez gero, gas-tuaren justifikazioa eta horren ordainketa horiek egiaztatuko dituzten dokumentuen aurkezpenaren bidez burutu beharko dira, eta dokumentu horiek, beharrezkoa izatera, martxoaren 8ko 85/1993 Foru Dekretuari egokitu beharko zaizkio.

Edonola ere, arauak edo oinarri arauemaileek zehaztu beharko dute dirulaguntza bakoitzerako aurreko leerroaldean aipaturiko justifikazioetarako balio duen dokumentu-mota.

Ordainketen justifikazioek, gutxienez emandako dirulaguntzen zenbatekoa jo beharko dute, baina betebeharrak ez da luzatzen fondo publikoak finantzatzen ez duten gehiegizko gastura.

Zenbateko esanguratsua duten edo ekonomian edo gizartean oihartzun handia duten dirulaguntzen kasuetarako, onuradunak, eskatzen diren gainerako agiriez gain, ikuskatzailetzaren txosten bat aurkeztuko du, aditu independienteek prestatua, harturiko dirulaguntza behar bezala aplikatu dela frogatu eta egiaztatuko duena, Foru Lege honetako 26.7 artikuluan ezarritakoarekin bat.

20. artikulua. Inbertsioen egiaztapena.

1. Bost milioi pezeta baino gehiago jotzen duten kapital-dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, organo kudeatzaileak inbertsioaren egiaztapen materiala egin dela baieztatu beharko du, eta hori akta edo egiaztatze-txosten bidez jaso beharko da espedientean.

Salbuespen gisa aurreko egiaztapen materialaren orde zuzen lagundutako jarduera burutu dela arrazoibidez eta nahikotasunez azalduko duen justifikazio dokumentala egin daiteke.

2. Oinarri arauemaileek kapital-dirulaguntzaren zatikako ordainketak edo aurrerakinak aurreikus-tzen dituztenean, aurreko atalak aipatzen duen egiaztapena haren kitapena eta azken ordainketaren unean burutuko da.

21. artikulua. Itzultzea.

1. Bidezkoa izango da eskuratutako kopuruak osorik edo hein batean itzultzea, eta dirulaguntza ordaindu den unetik, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 19. artikuluan finkaturiko zenbatekoaz atzerapen-korrituak eskatzea hurrengo kasu hauetan:

a) Dirulaguntza ematearen helburua ez bete-tzea.

b) Dirulaguntza lortzea horretarako baldintzak bete gabe, onuradunei egotzi ahal zaizkien zioak direla medio.

c) Eskuratutako fondoen xedea justifikatzeko betebeharrak ezarritako eran eta epeetan ez betezea.

d) Dirulaguntzen arteko konkurrentzia, horiek bateragarriak diren kasuetan izan ezik.

e) 16. artikuluko 2 atalak aipatzen duen muga gainditzea, eta muga horren gainetik gehiegizko kopuruak.

f) Emakidarako kontuan hartu diren baldintzak aldatu edo ez betezea, hurrengo ataleko b) letran sartzen ez badira.

g) Oztokatzea edo uko egitea Foru Lege honetako 8. artikuluan azaldutako egiaztatze-jardunkei makurtzeko betebeharrari.

h) Berariazko arau edo oinarrietan araututako bestelako kasuak.

2. Bidezkoa izango da eskuratutako kopuruak osorik edo hein batean soilik itzultzea hurrengo kasu hauetan:

a) Dirulaguntza lortzea horretarako baldintzak bete gabe, Administrazioari egotzi ahal zaizkion zioak direla medio.

b) Emakidaren baldintzen aldaketa, Administrazioak onartzen dituen.

c) Berariazko arau edo oinarrietan araututako bestelako kasuak.

3. Itzultzeko kopuruak zuzenbide publikoko dirusarreretat joko dira eta horiek kobratzeko aplikagarria izango da Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 17 eta 18. artikuluetan aurreikusitakoa.

4. Dirulaguntzaren itzultzeari buruzko erabakia organo emaileak hartuko du, aurretik espedienteak izapidatuko delarik; honi zentro kudeatzailearen arrazoiuriko proposamenarekin batera bidezkoak diren txostenak eta frogak eta, hala egokituz gero, onuradunaren alegazioak erantsiko zaizkio.

5. Ebazpena interesatuari jakinaraziko zaio, dirusarrera egiteko tokia, era eta epea azalduz, eta ohartaraziz itzulketa epearen barruan burutzen ez badu, premiamendu bidea erabiliz aplikatuko dela bilketa-jardunbidea.

22. artikulua. Zorren konpentsazioa.

Dirulaguntza baten onuraduna Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko zorduna den kasuan, dirulaguntzaren ordainketa harekin dituen zorren konpentsazioaren bidez egin ahalko da, arauak zehaztuko duten eran.

23. artikulua. (KENDUA).

V. Kapituluak. **Jarraipena eta kontrola**

24. artikulua. Jarraipena.

1. Emailak diren Departamentu eta Erakunde Autonomoek justifikazio atzeratutako dirulaguntzen jarraipena burutuko dute, ezarritako epean galdaturiko baldintzak betezea onuradunei eskatu eta dagozkien egiaztapenak egiteko.

2. Horretarako Departamentu eta Erakunde Autonomo horiek dirulaguntza horien jarraipen egokia egiteko behar diren erregistroak eramango dituzte.

25. artikulua. Laguntzeko betebeharrak.

Entitate laguntzaileek, onuradunek eta dirulaguntzaren xedearekin, edo horren justifikazioarekin, zerikusirik duten hirugarrenek Foru Ogasuneko Kontuhartzailetzari dagozkion kontrol-eginkizunak betezea errazteko betebeharrak dute, eta bereziki, ikerketaren xedea diren lokalak eta dokumentaziora libreki iristea, baita horien kopia erdiesteko aukera ere.

26. artikulua. Fiskalizazioa eta kontrola.

1. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dirulaguntzen kontrola burutuko du, kontuhartze-eginkizuna eta kontrol finantzieroaren bitartez.

2. Kontuhartze-eginkizuna, oro har, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legean ezarritakoarekin bat beteko da eta zehazki bilduko du:

a) Oinarri arauemaileen eta dagozkien deialdiak onesteko espedienteen aurretiko kontuhartzea.

b) Dirulaguntza emateko dokumentu edo espedientearen aurretiko kontuhartzea.

c) Betebeharraren aitortzearen aurretiko kontuhartzea.

3. Aurreko 2 ataleko a) letrako aurretiko kontuhartzea hurrengo hauen egiaztapenean gauzatu da:

a) Foru Lege honetako 7. artikulua aipatzen duen txosten juridikoa izatea.

b) Foru Lege honetako 6.2. artikuluan aipatzen diren aurrekontu-kredituen aipamena deialdietan izatea.

c) Espedientea onesteko aurkezten zaion organoaren eskumena.

4. Dirulaguntza emateko dokumentu edo espedientearen aurretiko kontuhartzea dagozkion ebazpena eman aurretik horien edukia egiaztatzean

gauzatuko da, kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datozela ziurtatzeko.

5. Betebeharraren aitorenaren aurretiko kontuhartzea, dagokion ebazpena eman aurretik betebeharrak dirulaguntzaren emakida baimendu zuen indarreko xedapen edo arautegiari egokitzen zaizkiola eta onuradunak bere betebeharra bete duela egiaztatzean gauzatuko da.

6. Aurreko 4 eta 5. ataletan ezarritakoa gora behera, espedienteen muntak eskatuz gero eta arrazoi bidez neurturiko bestelako inguruabarrek kontrola mugatzea aholkatzen badute, espedienteak izapidatzean arintasun handiagoa lortu eta horretarako baliabideak hobeki erabiltzeko, emakida zein betebeharraren aitoren-espedienteen kontuhartzea lagin-prozedurak edo tekniken bitartez egin ahal izango da, Nafarroako Gobernuak arau bidez ezarriko duen eran eta Kontuhartzaile Nagusiak txostena eman ondoren.

7. Artikulu honetako 1. atalak aipatzen duen kontrol finantzieroa hurrengo jarduketak bildu ahal izango ditu:

a) Dirulaguntza emateko onuradunei galdaturiko betekizunak, baldintzak eta betebeharrak bete dituztela zein jasotako fondo publikoak dagokien helbururako zuzen erabiltzen direla egiaztatzea.

b) Beharrezkoa izatera, dirulaguntzak onuradunen kontabilitatean edo erregistro-liburuetan zuzen islatzen direla egiaztatzea.

c) Arau bidez ezar daitekeen beste edozein jarduketa.

8. Ikuskaritza eta kontrol eginkizunak betetzean jasotako dirulaguntzaren lorpen, helburu edo justifikazio okerreren zantzuak antzematen badira, horiek egiteko ardura duten agenteek beharrezkotzat jotako kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte, eginkizun haiei dagozkien dokumentuen desagerpena, deuseztatpena edo aldaketa eragozteko.

Hartuako neurriek inolaz ere ez diote kalterik eragingo onuradunei eta, edonola ere, jarraitzen zaion helbururako egokiak izango dira.

27. artikulua. Ogasun Publikoaren aurkako delituaren gaineko zantzuak.

Horretarako eskudunak diren organoek egingako edozein egiaztatze-jarduketaren ondorioz, onuradunak Nafarroako Ogasun Publikoaren kontrako balizko delitu bat egiten ahal duela agerian ezartzen bada, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eta Departamentu edo Erakunde Autonomo emaileari emango zaie horren berri, behar diren neurriak har ditzaten.

VI. KAPITULUA Arau-haustek eta zehapenak

28. artikulua. Arau-haustek

1.- Portaera hauek dira dirulaguntza arloko administrazio arau-haustek:

1.1. Onuradunenak.

a) Dirulaguntza bat eskuratzea hori hartzeko baldintzak faltsutuz edo eragotzi edo murriztuko zutenak ezkutatu.

b) Dirulaguntzaren xedea izan ez ziren beste helburu batzuetarako erabiltzea, osorik edo hein batean.

c) Onuradunari egotz dakizkiokkeen zioengatik dirulaguntzaren emakidak ezarriko eginbeharrak ez betetzea.

d) Administrazio emaileak edo, hala bada, Entitate laguntzaileak egin beharreko egiaztapen eta kontrol jarduketei uko egitea edo oztopoak jarzea.

e) Administrazio emaileari edo, hala bada, entitate laguntzaileari ez jakinaraztea helburu bera duten beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratu dituztela, edozein Administrazio Publiko edo Ente Publiko nazional edo internazionalatik datozenak, eta dirulaguntza emateko funtsetako balio izan duen beste edozein gorabehera aldatzea.

f) Fondo publikoei emaniko erabilera ez justifikatzea, osorik edo hein batean.

g) Administrazio emailearen aurrean edo, hala bada, Entitate laguntzailearen aurrean, dirulaguntzaren emakidak ezarriko eginbeharrak ez betetzea.

1.2. Entitate laguntzaileenak.

a) Dirulaguntzari buruzko arauetan ezarriko irizpideekin bat harturiko fondoak onuradunei ez ematea.

b) Harturiko fondoak kudeatzeko Administrazio emaileak egin litzakeen egiaztapen eta kontrol jarduketei uko egitea edo oztopoak jartzea.

c) Dirulaguntzaren emakida eragin duten baldintzak betetzen direla eta eraginkorrak direla ez egiaztatzea, hala bada.

d) Administrazio emailearen aurrean harturiko fondoan aplikazioa ez justifikatzea edo onuradunek aurkezturiko justifikazioa ez luzatzea.

2. Lege honetan aipatzen diren administrazio arau-haustek oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke:

2.1. Onuradunen kasuan, artikuluko honetako 1.1 ataleko a), b) eta c) letretan aipatzen direnak eta, Entitate laguntzaileen kasuan, aurreko 1.2 ataleko a) letran aipatzen dena joko dira oso arau-hauste larritzat.

2.2. Onuradunen kasuan, artikuluko honetako 1.1 ataleko d) eta e) letretan aipatzen direnak eta, Entitate laguntzaileen kasuan, aurreko 1.2 ataleko b) eta c) letretan aipatzen direnak joko dira arau-hauste larritzat.

2.3. Onuradunen kasuan, artikuluko honetako 1.1 ataleko f) eta g) letretan aipatzen direnak eta, Entitate laguntzaileen kasuan, aurreko 1.2 ataleko d) letran aipatzen dena joko dira arau-hauste arintzat.

3. Lehen aipaturiko portaerak dituzten onuradun eta Entitate laguntzaileak izanen dira arau-hausteen arduradunak.

4. Oso arau-hauste larriak bost urte pasata preskribituko dira, larriak hiru urte pasata eta arinak urtebete pasata. Preskripzio epea arau-haustea egin den egunetik hasita kontatuko da.

29. artikulua. Zehapenak.

1. Administrazio arau-hausteak honekin bat zehatuko dira:

1.1. Oso arau-hauste larriak:

Behar bezala eskuratu edo erabili ez duten edo, Entitate laguntzailearen kasuan, hartu duen diru-kopuruaren halako bitik hirura bitarte egiten duen isuna.

Eskudun den agintaritza zehatzaileak, gainera, zehapen hauek ezartzea erabakitzen ahalko du:

a) Bai onuradunaren kasuan, bai Entitate laguntzailearen kasuan ere, hirutik bost urte bitarteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren Erakunde Autonomoetako dirulaguntzak hartzeko do Entitate laguntzaile izendatua izateko eskubidea galtzea.

b) Hirutik bost urtera bitarteko epean, Nafarroako Foru Komunitatearekin eta haren Erakunde Autonomoekin kontratuak izenpetzeko debekua.

1.2. Arau-hauste larriak:

Behar bezala eskuratu edo erabili ez duten edo, Entitate laguntzailearen kasuan, hartu duen diru-kopuruaren halako bi egiten duen isuna.

Eskudun den agintaritza zehatzaileak, gainera, zehapen hauek ezartzea erabakitzen ahalko du:

a) Bai onuradunaren kasuan, bai Entitate laguntzailearen kasuan ere, batetik hiru urte bitar-

teko epean, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren Erakunde Autonomoetako dirulaguntzak hartzeko edo Entitate laguntzaile izendatua izateko eskubidea galtzea.

b) Batetik hiru urtera bitarteko epean, Nafarroako Foru Komunitatearekin eta haren Erakunde Autonomoekin kontratuak izenpetzeko debekua.

1.3. Arau-hauste arinak:

Behar bezala eskuratu edo erabili ez duten edo, Entitate laguntzailearen kasuan, hartu duen diru-kopuruaren adinako isuna.

Eskudun den agintaritza zehatzaileak, gainera, zehapen hauek ezartzea erabakitzen ahalko du:

a) Bai onuradunaren kasuan, bai Entitate laguntzailearen kasuan ere, urtebete epean, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren Erakunde Autonomoetako dirulaguntzak hartzeko edo Entitate laguntzaile izendatua izateko eskubidea galtzea.

b) Urtebete epean, Nafarroako Foru Komunitatearekin eta haren Erakunde Autonomoekin kontratuak izenpetzeko debekua.

2. Lege honetan aurreikusiriko administrazio arau-hausteengatik, aurreko zehapenak ezartzeko, kontutan hartuko da:

a) Nahita edo behin baino gehiagotan egin den.

b) Eraginiko kalteen izaera.

c) Berrerortzea, urtebete epean, izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egiteagatik, administrazio bidean ebazpen irmoaren bidez hala aitortzen denean.

3. Ezartzen diren zehapenak independienteak izanen dira arau-hausleari Lege honetan dirua itzultzeko aipatzen den beharra eskatzeareari buruz.

4. Oso arau-hauste larriengatik ezartzen diren zehapenak bost urte pasata preskribituko dira, arau-hauste larriengatik ezartzen direnak hiru urte pasata eta arau-hauste arinengatik ezartzen direnak urtebete pasata. Preskripzio epea arau-haustea egin eta bihamunetik hasita kontatuko da.

30. artikulua. Zehapen ahalmena erabiltzeko eskudun diren organoak.

Dirulaguntza eman duten organoak dira zehapen-prozedurari ekiteko eskudunak.

Arau-hauste arin eta larrien kasuan, dirulaguntza eman duen edo Erakunde Autonomo emalea atxikirik dagoeneko Departamentuko titularrak izanen da eskuduna zehapen-prozedura ebazteko.

Oso arau-hausteen kasuan, Nafarroako Gobernuari dagokio ebaztea.

31. artikulua. Erantzukizun subsidiarioa

Dirua itzultzeko beharraren eta Lege honetan biltzen diren zehapenen erantzukizun subsidiarioa, pertsona juridikoen ordezkarien kasuan, haien izaera edozein delarik ere, Estatuko legerian ezarritakoaren arabera arautuko da. Sozietate edo Entitate desegin eta likidatuaren kasuan, esparru juridiko bera aplikatuko da behar horiek eskualdatzen direnean.

32. artikulua. Zehapen prozedura.

Zehapen-prozedura Araubide Juridiko eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko Legean ezarriko dagoena izanen da.

Xedapen Iragankorra

Foru Lege hau indarrean sartu aurretik emandako xedapenen babesean egindako deialdiei

dagozkien dirulaguntzak haietan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Xedapen Indargabetzailea

Indargabeturik gelditu dira Foru Lege honetan ezarritakoari aurre egin edo kontrajartzen zaizkion lerrun bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta bereziki abenduaren 26ko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 60 eta 61 artikulua eta azaroaren 23ko 10/1990 Osasunari buruzko Foru Legeko IX. Tituluko II. Kapituluak.

Azken Xedapenak

Lehena. Foru Lege honetako edukia arau bidez garatzeko ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari.

Bigarrena. Foru Lege honetan bildutako arauak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko dute indarra.

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra arautzen duen Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra arautzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra arautzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Foru Lege Proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.”

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra arautzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN ADIERAZPENA ETA AURRERAKINAK

Abuztuaren 10eko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak bere 47. artikuluan esaten du Nafarroak eskumen osoa duela irakaskuntzaren arauak eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, deuse-tan ukatu gabe gai honi buruzko manu konstituzionaletan ezarritakoa, ez horiek garatzen dituzten lege organikoak, ezta ikasketa nahiz lanbide tituluak eskuratu, eman eta baliokidetzeko, hala nola berauek bete eta bermatzeko Estatuak duen goi-ikuskaritzaren baldintzak arautzeari dagokionez Estatuaren eskumenak ere.

Bere aldetik, uztailaren 3ko Irakaskunza Eskubideari buruzko 8/1985 Lege Organikoak, bere 34. artikuluan, honako hau xedatzen du: “autonomi elkarte bakoitzean, bere herrialde-eremua hartuko duen Eskola Kontseilu bat izango da, eta honen osaketa eta egitekoak autonomi elkarte bakoitzeko Parlamentuaren lege batek arautuko ditu, ira-

kaskuntza antolatzeako ondorioetarako ukitutako sektoreen parte hartze egokia bermatuko duena. Bere aldetik, 35. artikulua zera dio: "botere publikoek, bere eskumenak erabiliz, aurreko artikuluan azaltzen direnen ez bezalako herrialde-eremuak dituzten Eskola Kontseilu eratzten ahalko dute, baita berauek antolatu eta abian jartzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ere. Edonola ere, Kontseilu horietan ukitutako sektoreek egoki hartuko dutela parte bermatu beharko da".

Antzera, azaroaren 20ko ikastetxeetan parte hartu eta berauek ebaluatu eta gobernatzeko 8/1995 Lege Organikoak honako hau xedatzen du: "Irakaskuntza administrazioek Eskola Kontseiluak eratu ahalko dituzte, bere herrialde-eremu zehatza, osaketa, antolamendu eta funtzionamendua ezarri".

Aipatu xedapenek ezartzen dutenaren babesean, egungo lege-esparrua egokitu behar da arauak ezartzen dutenarekin eta irakaskuntza-komunitateak eskatzen duenarekin, Nafarroako unibertsitatekanpoko irakaskuntzan sartuta dauden sektoreen parte hartzea bultzatzeko eta eraginkorragoa egiteko. Horretarako, Foru Lege honek sortzen dituen ordezkatzeko eta parte hartzeko erakundeek Nafarroako Hezkuntzako Goi Batzarra ordezkatzeko dute, azken hau 1829ko Gorteen Legeak eratu zuelarik, eta organo honek ahalezko egin duelarik Nafarroako Foru Diputazioa eta Estatuko Administrazioa elkarrekin aritzea azken hamarkadetan, foru araubidearen eskumen alor zabala irekirik.

Konstituzioa indarrean sartu zenean, eta Konstituzio horretako 27. artikulua ezartzen duelarik ukitutako sektore guztiek parte har dezaketela irakaskuntzaren programazio orokorrean, 1979ko ekainaren 29ko Nafarroako Foru Diputazioaren Erabakiak ezarri zuen irakaskuntzatik gertu dauden hainbat gizarte eragilek Batzordean parte har zezaten. 167/1991 Foru Dekretuak batzordearen osaketa eta eginkizunak aldatu zituen, era iragankorrean, antolamenduak eta eskumenak Nafarroako Foru Komunitateak unibertsitatekanpoko irakaskuntzen arloan eginkizunak eta zerbitzuak hartu ondoren ireki den egoera berriarekin bat etor zitezten. Eginkizun eta zerbitzuak hartze hau abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuak agindu zuen. Aipatu 167/1991 Foru Dekretuaren zioen adierazpenak berak izaera iragankorra Batzordearen izatea bera, osaketa eta eginkizunak ondoren egin beharreko Foru Legearen bidezko berregokitu beharri egozten zion.

Hitz batez, honako Foru Lege honek amaiera ematen dio Nafarroa irakaskuntzaren alorrean eta bere foru araubideari esker bere eskumenak era-

biltzen ari den arauzko prozesu historikoari, eta Nafarroako gizarteak irakaskuntzaren administrazio eta kudeaketan parte hartzen duen prozesuari. Legearen helburua da, beraz, gizarteak irakaskuntzaren programazio orokorrean parte har dezan antolatzea eta, batez ere, bultzatzea, horretarako zein irakaskuntza-kudeaketa demokratizatzeke eta haren gainean beharrezkoa den gizarte-kontrola ezartzeko tresna bat emanez. Helburu hau, urriaren 3ko Irakaskuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren 1/1990 Lege Organikoak arautzen dituen irakaskuntzak ezartzeko prozesuan bereziki eskatzen da.

Foru Lege honek I. Tituluan ematen du bere helburuaren berri, unibertsitatekanpoko irakaskuntzaren programazioko aholkularitza eta parte hartzearen goi organoak zeintzuk diren ezarri, eta programazioaren edukia mugatuz.

Legeak parte hartzeko hiru maila aurreikusten ditu, parte hartzeko hiru erakunde-motarekin uztartzen dena: Nafarroako Eskola Kontseiluarekin, Eskualdeko Eskola Kontseiluekin eta Tokiko Eskola Kontseiluekin. Hiru erakunde-mota hauek Nafarroan unibertsitatekanpoko irakaskuntzaren programazioan, maila guztietan, ukiturik dauden sektoreen parte hartzea egituratzeko eta bultzatzeko balio behar dute.

II. Tituluak Nafarroako Eskola Kontseilua arautzen du, Nafarroaren barruan unibertsitatekanpoko irakaskuntzaren alorrean aholkularitza organo nagusia eta ukituriko sektoreen ordezkaritza erakunde nagusia izan dadin. Haren egitekoak oinarritzko gorabeherei dagozkie, hezkuntza politika orokorrari lotuak daudenei eta Nafarroa osoan oihartzuna dutenei. Haren osaketak, esleituko zaizkion eginkizunei hertsiki loturik egonen denak, unibertsitatekanpoko irakaskuntzak ukituriko gizarte interesen ordezkaritza zabala biltzen du, gizarte horren nolakoa eta zenbatekoa aintzat hartzen duena.

Kontseilua eraginkor eta zalu funtzionatuko duela ziurtatzeko, Batzorde Iraunkor moduan funtzionatuko duela aurreikusten da.

III. Tituluak Eskualdeko Eskola Kontseiluak arautzen ditu, hauek bigarren maila bat osatuko luketelarik. Haien helburua da irakaskuntza Komunitateak Foru Komunitatea zatiturik gelditzen den eskualdeetako bakoitzean dauden kasuan kasuko arazoei irtenbide bilatzeko orduan parte hartuko duela bermatzea eta parte hartze hau egituratzea. Eskualdeok sustrai historiko berdintsuak dauzkate eta aldaera geografikoak, ekonomikoak eta biztanleriaren aldetikoek antzeko arazoak sorrazten dituzte. Eskualdeetan zatitze

honen oihartzunak, eta oihartzun honen eragin praktikoak bereziki gomendagarria egiten dute organo hauek sortzea.

Nafarroako Eskola Kontseilua eta aipatu eskualdeko kontseiluen artean lotura handiagoa bermatzeko horietako bakoitzari ordezkari emango zaio Nafarroako Kontseiluan.

IV Tituluak Nafarroako toki entitateei eskumena ematen die Tokiko Eskola Kontseiluak eratzeke, udaleko arloan unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzaren programazioan ukitutako sektoreek parte hartzeko eta aholkuak emateko organoak bezala.

I. Titulua Xedapen Orokorrak

1. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean ukituta dauden sektore guztien parte hartze benetako eta eraginkorra Foru Lege honek eta berau garatzen duten xedapenek ezartzen dutenaren arabera gauzatuko da.

2. artikulua. 1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du, unibertsitatetik kanpoko esparruan, hezkuntzarako eskubidea benetan beteko dela, eta honetarako irakaskuntza, orokorrean, programatuko, ikastetxeak sortuko eta irakaskuntza ordenatuko du, ukitutako sektore guztiek parte hartuko dutela bermatuz, irakaskuntzak dakartzen beharrei erantzun egokia emango zaiela ziurtatuko delarik.

2. Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrak hezkuntza mailako beharrak definitu, jarduketa-helburuak finkatu, behar diren baliabideak zehaztu eta ikaspostuak kasuan-kasuan programatuko ditu, ikastetxe publiko eta itunduen sarea aintzat hartuz.

3. Irakaskuntzaren programazio orokorrak ondoren aipatzen diren helburuak izanen ditu:

a) Hezkuntzarako eskubidea benetan beteko dela bermatzea, nortasunaren erabateko garapenari begira.

b) Hiritarren hezkuntza-beharrak beteko direla bermatzea, ikaspostuen eskaintza egokiaren bidez.

c) Hiriguneetan ikastetxe publikoen eta pribatuen arteko planifikazio egokia bermatzea, elkarren osagarritasunaren hatsapenaren arabera.

d) Eskola-sistema gizabanakoaren mailan edo gizarte mailan dauden desberdintasun guztiak berdintzeko tresna den aldetik indartzea.

e) Irakaskuntzaren kalitatea hobetzea.

f) Nafarroako historia eta kulturaren ikerketa, zabalkuntza eta ezagutza bultzatzea.

g) Euskararen normalkuntza eta erabilera bultzatzea hezkuntzaren alorrean.

h) Gizarteak hezkuntza komunitateari egiten ahal dizkion prestakuntza-eskaintzak koordinatu eta sartzea.

i) Ikastetxeak euren inguru geografiko, sozioekonomiko eta kulturean erabat bertakotu daitezzen bultzatzea.

Helburu hauek betetzeko, eskola komunitateko sail ezberdinen parte hartzea bultzatuko da, berauek ordezkatzeko dituzten erakundeen bidez.

4. Irakaskuntzaren programazio orokorrak, gutxienik, ondorengo gorabehera hauek hartuko ditu aintzat:

a) Hezkuntza alorreko lehentasunezko gaiak zeintzuk diren zehaztea.

b) Baliabide beharrezkoak zeintzuk diren finkatzea, plangintza ekonomikoa ikusirik.

c) Kontuan hartutako aldirako jarduketa-helburuak.

d) Sortu behar diren ikaspostu berriak programatzea, bi sareak aintzat hartuz (publikoa eta pribatu itundua), ikaspostu hauek sortu behar diren eskualdeak eta udalak zehaztuz.

e) Instalazioak eta eskolako ekipamenduak zaindu, hobetu eta gaurkotzeko jarduketaren programazioa.

f) Irakaskuntzan aukera-berdintasuna bermatzeko jarduketaren programazioa, eta horien artean osabidezkoak eta hezkuntza-integrazioaren alde egin nahi dutenak.

g) Fondo publikoekin finantzaturiko ikastetxe itunduei buruzko jarduketaren programazioa.

h) Giza baliabideen aldetik dauden beharrak zehaztea, eta giza baliabide hauen prestakuntza eta hobetzeari buruzko jarduketak ere zehaztea.

5. Nafarroako Gobernuak egingo du urteoro giza eta gauzazko baliabideak izendatzeko plan bat, hezkuntzaren aldetiko beharrak asetzeko, dagoen ikastetxeren eskaintza orokorra aintzat hartuz.

3. artikulua. Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzaren programaziorako aholkularitza eta parte hartzeko goi organoak honako hauek izango dira:

a) Nafarroako Eskola Kontseilua

- b) Eskualdeko Eskola Kontseilua
- c) Hala badagokio, Tokiko Eskolako Kontseilua

II. TITULUA

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra

I. KAPITULUA

Kontseilua eta honen osaketa

4. artikulua. Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra Foru Komunitateko unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean ukitutako gizarteko sektoreek parte hartzeko eta aholkularitza lanetarako daukaten goiko organoa da.

5. artikulua. Ondoren aipatzen diren hauek izanen dira Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzarra osatuko dutenak:

1. Kontseiluko Lehendakaria, Kontseiluko kideek aukeratua eta Nafarroako Gobernuak izendatua, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak hala proposaturik.

2. Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatu itundutako sei irakasle, unibertsitate mailakoak ez direnak, honako banaketa honen arabera:

a) Ikastetxe publikoetako lau, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari unibertsitatetik kanpoko langileen batzordean ordezkariak gehien duten sindikatuetatik bik bana izendatua.

b) Ikastetxe pribatu itunduetako bi, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza itunduan ordezkariak handiena duten bi sindikatuetakoa bakoitzak bana izendatua.

3. Nafarroako ikastetxe publiko zein pribatu itunduetan haurra eskolarizaturik daukaten sei aita edo ama, legez eraturiko Nafarroako Guraso Elkartearen Federaziorik ordezkariak gehien dutenak: ikastetxe publikoetako lau aita edo ama eta ikastetxe pribatu itunduetako beste bi.

4. Ikasleen Elkartearen Federazioek, bere ordezkariak eta afiliazioaren arabera, proposaturiko bost ikasle, horietarik hiru zentro publikoetakoak eta bi zentro pribatuetakoa izango direlarik.

5. Zerbitzu eta Administrazio langileen bi ordezkari, sindikatuak bere ordezkariak arabera proposaturik.

6. Nafarroako ikastetxe pribatu itunduen erakunde titularren bi ordezkari, ordezkariak handiena duten Elkarteak edo Federazioak hala proposaturik. Elkarte edo Federazio hauek honakoak

izango dira: Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan ikaslerik gehien biltzen dutenak.

7. Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak proposaturik, Hezkuntza Administrazioari hiru ordezkari.

8. Eskualdeko Eskola Kontseiluen zazpi ordezkari, Foru Komunitatea zenbat eskualdetan banatu eta zati bakoitzaren ordezkari bat, Kontseiluak berak aukeratuta.

9. Toki entitateen bina ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontseiluen Federazioak proposaturik.

10. Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) ordezkari bat, bertako Gobernu Batzordeak aukeratuta.

11. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko bi kide, Batzordeak berak izendatuta.

12. Nafarroako Foru Komunitatean ordezkariak handien duten sindikatuak proposaturiko bi ordezkari.

13. Nafarroako Foru Komunitatean ordezkariak handien duen enpresarioen elkarteak proposaturiko ordezkari bat.

14. Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak irakaskuntzan bereziki interesaturik daudenen edo irakaskuntza arloan nabarmentzen direnen artean izendaturiko kide bat.

15. Nafarroako Gobernuak izendatuko du, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak hala proposaturik, Nafarroako Eskola Kontseiluko idazkaria. Bileretara joango da, hizpidearekin baina botorik gabe, eta bilera hauen aktak egingo ditu.

Nafarroako Eskola Kontseiluko Idazkaritzak, Erakunde horren administrazio organo iraunkor bakarra, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren barruan sartuko da. Departamentuak utzi beharko ditu Idazkaritzaren esku honek bere jardunerako behar dituen giza zein gauzako baliabideak.

Nafarroako Eskola Kontseiluak eskatu ahalko du, Idazkaritzaren bidez, bere eginkizunak betetzeko beharrezkoak den teknikari edo eta laguntzaileen laguntza. Teknikari eta laguntzaile hauek hizpidea izango dute, baina botorik ez.

Eskola Kontseiluko kideek eskatu ahalko diote Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, Idazkaritzaren bidez, bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio eta dokumentazio guztia, ahalik eta lasterren iritsaraziko zaiona.

6. artikulua. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak izendatuko ditu, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak hala proposa-

turik, aurreko artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

7. artikulua. 1. Nafarroako Eskola Kontseiluko kideen agintaldiak lau urte iraungo du.

2. Aurreko atalean xedatutakoaren kalterik gabe, kideak 5. eta 6. artikuluek ezartzen dutenaren arabera izango dira berretsiak edo kenduak, dagokion erakundaren ordezkariak aldaraz dezaketen hauteskundeak egin eta gero, edo ordezkariak berrituak izan eta gero.

3. Ordezkaritza edo kargua dela eta Nafarroako Eskola Kontseiluko kideak diren horiek ordezkariak galdu edo karguari uzten dioten unean baja izango dira Kontseiluan.

4. Nafarroako Eskola Kontseiluan hutsunerik sortzen bada, kide berriaren agintaldiak hutsunea sorrarazi duenari gelditzen zitzaion beste iraungo du.

II. KAPITULUA

Kontseiluaren eginkizunak eta eskumenak

8. artikulua. 1. Nahitaezkoa izango da Nafarroako Eskola Kontseiluari iritzia eskatzea ondoren aipatzen diren afera hauei buruz:

a) Irakaskuntzaren programazio orokorreko oinarri eta irizpide orokorrei buruz.

b) Foru Lege aurreproiektu, erregelamendu betearazle orokorren proiektu, eta Nafarroako Gobernuak onartu behar dituen hezkuntza mailako beste arauzko xedapen batzuei buruz.

c) Ikastetxeen sortze, aldatze, kentze eta eskualdeka banatzeari buruzko plangintza orokorrari buruz.

d) Ikastetxeetako funtzionamenduaren eta antolamenduaren ezaugarriari, plantilei eta hezkuntza-ekipamenduei buruzko arautegi orokorrari buruz.

e) Ikastetxe publikoen, pribatu itunduen era diruz lagundutakoaren finantzazioari buruzko irizpide orokorrei buruz.

f) Hizkuntza ereduak egituratu eta ezartzeko xedapen orokorrei buruz.

g) Nafarroako Gobernuaren ikerketarako laguntza eta beken sistemaren oinarritzko hatsapenei buruz.

h) Eskola ordutik kanpoko jarduerari buruzko arautegi eta unibertsitatekanpoko irakaskuntzaren zerbitzu osagarriari buruz.

i) Nafarroako Foru Komunitateak Estatuarekin edo autonomi elkarteekin izenpetu nahi dituen

hezkuntza mailako hitzarmen edo lankidetzak hitzarmen proiektuei buruz.

j) Irakaskuntzaren kalitatea eta irakaskuntza Nafarroako gizarteko errealitateari egoki dakion egiten diren xedapen eta jarduketari buruz, baita gizabanakoen zein gizarte mailakoen desberdintasunak berdintzeko hartzen direnei buruz ere.

2. Era berean, Nafarroako Eskola Kontseiluari dagokio txostenak onartzea ondoren esaten diren aferei buruz:

a) Hezkuntza sistemaren ebaluazioari buruz.

b) Ikastetxeen araubideari buruz.

c) Zentro publiko eta pribatuetan legezko arauak betetzeari buruz.

d) Irakasleen prestakuntza eta hobekuntzari buruz.

e) Giza baliabideei buruzko politikari buruz.

f) Unibertsitatekanpoko irakaskuntzaren kalitatearekin zerikusirik duen beste edozeini buruz.

3. Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak Nafarroako Eskola Kontseiluari eskatu ahalko dio iritzia Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatekanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrarekin zerikusirik duten beste hainbat gairi buruz.

4. Eskola Kontseiluak, berak nahita, egoki jotzen dituen txostenak igorri ahalko dizkio Kontseiluari Hezkuntza Komunitatearen eskubideen bermearekin edo eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzearekin zerikusirik duen edozein gairi buruz.

III. KAPITULUA

Kontseilua eta Batzorde Iraunkorren jarduna

9. artikulua. 1. Nafarroako Eskola Kontseiluak Osoko Bilkuren eta Batzorde Iraunkorren bidez jardungo du.

2. Honako hauek izango dira Batzorde Iraunkorreko kideak:

a) Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakaria, edo berak eskuordetzen duen pertsona, Batzordea zuzenduko duena.

b) Hezkuntza Administrazioako ordezkari bat, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak izendatua.

c) Irakasleen bi ordezkari.

d) Ikasleen gurasoen bi ordezkari.

e) Eskualdeko Kontseiluetako bi ordezkari.

f) Toki Administrazioako ordezkari bat.

c), d), e) eta f) atalek aipatzen dituzten ordezkarien izendapena ordezkatzeko den talde edo sektore bakoitzaren kontu izango da.

Nafarroako Eskola Kontseiluko Idazkaria Batzorde Iraunkorreko Idazkaria izango da, baita ere.

2. Honako hauek dira Batzorde Iraunkorraren eginkizunak:

a) Urtero Kontseiluaren Osoko Bilkurari igorri behar zaion Nafarroako hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena prestatzea.

b) Osoko Bilkurak agintzen dizkion txostenak eta proposamenak prestatzea ondoren berriro Osoko Bilkurara bidaltzeko.

c) Kontseiluaren Osoko Bilkurak agintzen dizkion proposamenak eta txostenak kideen bi here-neko gehiengoaz onartzea.

IV KAPITULUA Beste xedapen batzuk

10. artikulua. Nafarroako Eskola Kontseiluak ikasturte bakoitzean egingo du Nafarroako hezkuntza-sistemaren egoerari buruz txosten bat, baita bere jardueren oroit-idazkia ere. Txostena zein oroit-idazkia Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentuari bidaliko zaizkio eta jendaurrea zabalduko dira.

III. TITULUA Eskualdeko Eskola Kontseiluak

11. artikulua. Eskualdeko Eskola Kontseilua Foru Komunitatea banaturik geldituko den eskualde bakoitzeko unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean ukitutako gizarteko sektoreek parte hartzeko eta aholkularitza lanetarako daukaten organoa da.

12. artikulua. 1. Foru Komunitatea zapi eskualde edo eremutan banatuko da, eta eskualdeen izenak ondoko hauek izango dira: Baztan-Bidasoa, Burunda-Larraun, Pirinioak-Zangoza, Iruñea-Iruñerria, Lizarrerria, Erriberako Erdialdea eta Tuterako Erribera.

2. Kontseiluaren antolamendu eta jarduneko erregelamenduak ezarriko du eskualde bakoitzak zer ikastetxe-sare biltzen dituen bere baitan.

3. Eskualdeko Eskola Kontseiluek lege honek aurreikusten duenaren eta bere ezaugarrien arabera prestatuko dituzte euren erregelamenduak.

13. artikulua. Honako hauek izango dira Eskualdeko Kontseiluetako kide:

a) Hezkuntza administrazioaren ordezkaria, administrazio horrek berak aukeratua.

b) Irakasleen hiru ordezkari, banaketa honen arabera:

1. Ikastetxe publikoetako bi, Langileen Batzordean ordezkari izan diren bi sindikatuek aukeratuta.

2. Ikastetxe itunduetako ordezkari bat, eskualdean halakorik badago, Nafarroako pribatuaren mahaian ordezkari izan diren sindikatuak aukeratuta.

c) Gurasoen bi ordezkari, Nafarroako Eskola Kontseiluko Apymas direlakoen Federazioek izendatuta.

d) Toki entitateen bi ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontseiluen Federazioak izendatuta.

e) Administrazio eta Zerbitzuen langileen ordezkari bat, Nafarroako Eskola Kontseiluan sektore horren ordezkari izan diren sindikatuak izendatuta.

f) Eskualde bakoitzean ordezkari izan diren sindikatuak izendatutako ordezkari bat.

14. artikulua. Eskualdeko Kontseiluak berak aukeratuko du Kontseilu hauen lehendakaria bere kideen artean, eta Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak izendatuko du.

15. artikulua. Nahitaezkoa izango da Eskualdeko Eskola Kontseiluari iritzia eskatzea ondorengo gai hauei buruz:

a) Unibertsitatetik kanpoko ikastetxeen herrialde-banaketa eta sortzea/kentzeari buruzko programazioari buruz, eta bere eskualdeko ikaspostuen eskaintzari buruz.

b) Hezkuntza zerbitzuei buruz eta eskualdeko irakaskuntzaren kalitatea hobetzearekin zerikusirik duten gainerako prestazioei buruz.

c) Nafarroako Eskola Kontseiluak eskatzen dion beste edozein aferari buruz.

2. Era berean, Nafarroako Eskola Kontseiluari eskualdeko irakaskuntza hobetzeko interesgarria iruditzen zaizkion proposamenak eta txostenak igortzen ahalko dizkio.

IV TITULUA Tokiko Eskola Kontseiluak

16. artikulua. Tokiko Eskola Kontseilua udal mailako unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean ukitutako gizarteko sektoreek parte hartzeko eta aholkularitza lanetarako daukaten organoa da.

17. artikulua. 1. Gutxienez Lehen mailako Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako ikastetxea daukaten toki entitateek tokiko Eskola Kontseilua egiten ahalko dute. Haietan bermaturik egon beharko du irakasleen, gurasoen eta ikasleen ordezkariak, eta, halakorik balego, ikastetxe publikoetako zuzendarien eta ikastetxe pribatu itunduetako titulareen ordezkariak ere.

2. Nafarroako Gobernuak erregelamenduz ezartzen ahalko ditu tokiko Eskola Kontseiluen antolamendu eta jardunari buruzko oinarri orokorrak. Oinarri orokor hauek arautzen dituen xedapenak aintzat hartuko du toki entitateek bere Eskola Kontseiluen antolamendu eta jardunari buruzko kasuan kasuko formulak proposatzea, eta gero Hezkuntza eta Kultura Departamentuak proposamen hauek onartzea, proposamenek bertako hezkuntza-gorabeherak, kokapen geografikoa edo eta inguruabar demografikoak kontuan hartuko dituztelarik.

18. artikulua. 1. Tokiko Eskola Kontseiluen eginkizuna izango da dagozkien toki entitateek eskatzen dizkieten edo eta eratze-arauetan nahitaezkoztat jotzen diren txostenak egitea, toki entitateen eskumenekoak diren hezkuntza-gaiez ari garelarik.

2. Halaber, Eskualdeko Eskola Kontseiluak igorri ahalko dio, edozein kasutan, dagokion toki entitateari, aurreko atalean aipatzen diren gaiei buruzko proposamenak.

3. Era berean, Eskualdeko Eskola Kontseiluari edo eta Nafarroako Eskola Kontseiluari igorri ahalko dizkiete udaleko hezkuntza-esparrua ukitzen duen edozein gairi buruzko proposamenak, beti ere Foru Lege honek ezartzen duenaren arabera gai horiei buruzko proposamenak edo txostena egiteko eskumena badute.

Xedapen Gehigarriak

Lehena. Nafarroako Eskola Kontseilua behar bezala eratua geldituko da bertan sartu direnean, gutxienik, bere kide edo ordezkarien bi herenak.

Bigarrena. 1. Sei hilabeteko epean, eratzen denetik kontaktzen hasita, Nafarroako Eskola Kontseiluak bere Antolamendu eta Jarduneko Erregelamendua prestatuko du, eta bertan arautuko dira osoko bilkurarako dei egiteko eta egiteko jardunbidea, proposamenak eta txostenak onartzeko modua, Eskualdeko Kontseiluak hartuko duen esparrua, eta Kontseilua egoki funtzionatzeko beharrezkoa den gainerako gutzia.

2. Kontseiluaren Antolamendu eta Jarduneko Erregelamendua Hezkuntza eta Kultura Departamentuari igorriko zaio, eta honek Nafarroako Gobernuari igorriko dio, honek onar dezan.

Xedapen Iragankorra

Foru Lege honek sortzen duen Nafarroako Kontseilu Eskola eratzen ez den artean, oraingo Nafarroako Hezkuntzako Goi Batzarrak jardunean iraungo du bere eskumeneko gaiei dagokienez.

Azken Xedapenak

Lehena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak aldarrika ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek ezartzen duenaren aurka dauden lerrun bereko edo gutxiagoko xedapenak indargabetuak geldituko dira.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN OSAKETA		
	Zenbat	40 kide (ehunekotan)
Irakasleak	6	15
Gurasoak	6	15
Ikasleak	5	12,5
Azi	2	5
Ikastetxe prib. itund.	2	5
Sindikatuak	2	5
Enpresarioak	1	2,5
Eskualdeko EK	7	17,5
Hezkuntza Administrazioa	3	7,5
Toki entitateak	2	5
Parlamentua	2	5
Unibertsitate Publikoa	1	2,5
Adituak	1	2,5

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua premiatzen duena Soldadutzaren Ordezko Gizarte Zerbitzuko azpibatzordearen jardura bultza dezan

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua premiatzen duena Soldadutzaren Ordezko Gizarte Zerbitzuko azpibatzordearen jardura bultza dezan aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-egunaren bezperako eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua ezarritakoaren babesean, hurrengo Mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran bideratzeko:

Gazteriaren Departamentuarterko Batzordeak azpibatzorde bat sortu zuen bere garaian aztertu ahal izateko postuen balizko eskaintzak Nafarroako gazte kontzientzi eragotzilek Soldadutzaren

Ordezko Zerbitzua Foru Komunitatean egin zezaten.

Dirudienez, garai batean gobernu hirukoitzak bultzatu zuen Foru Gobernuaren eta Justizi Ministerioaren arteko hitzarmena izenpetzea atzeratu egin dela eta SOZeko postuak abiaraztea albo batera utzita (Su-itzaltze partzuergoak bere kabuz eskaintzen dituen postu batzuk salbu).

Kontuan izanik Nafarroako gazte kontzientzi eragotzile gehienek Foru Komunitatetik kanpora jo behar dutela SOZ egiteko, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari hurrengo Erabakia hartu du:

Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentua premiatzen da:

1.- SOZeko azpibatzordearen jardura bultzatzeko kudeaketa egokiei ekin diezaion.

2.- Justizi Ministerioarekin beharrezko kudeaketak egiteari eutsi diezaion Gobernuak bere garaian landu zuen hitzarmena izenpetu dezan.

3.- Nafarroako eragotzilei SOZ postuak eskaini diezazkien Foru Komunitatean.

4.- Udaletan SOZ postuak eskaintzeko aukeren berri eman diezaien Nafarroako udalei.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18a

Bozeramalea: Juan Cruz Alli Aranguren.

Mozioa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua premiatzen duena Europako Batasunak kofinantzatutako programen artean zainzuriaren eta basaranaren landaketa proposa dezan

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua premiatzen duena Europako Batasunak kofinantzatutako programen artean zainzuriaren eta basaranaren landaketa proposa dezan aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-egunaren bezperako eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua ezarritakoaren babesean, hurrengo Mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran bideratzeko:

Nafarroako 1997ko Aurrekontu Orokorren eztabaidan, Nafarroako Demokratikoen Elkarguneak emendakina aurkeztu zuen beste aurrekontu-lerro bat sortzeko eskatuz, hots, fruta eta barazkien

Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren eraberritzearen baitan zainzuri laborantzak jasoko dituen laguntzen osagarriak jartzeko. Nafarroako Gobernuak, ordea, ez du sentiberatasunik erakutsi Nafarroako berezko laborantza hori aldeztetarako.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak aurreikusi egin du ingurugiro neurriei buruzko programa bereziak aurkeztea Europako Batasunari. Horren baitan dira hurraren laborantza, konparazioa. Nafarroak berezkoak dituen beste batzuk, zainzuria eta basarana, esate baterako, kanpoan geratu dira, berriz ere.

Kontuan izanik ingurugiro neurriok Europako Batasunak finantzatzen dituela ehuneko 50ean, ezin dugu zainzuria eta basarana aipatu neurrien barruan sartzeko aukera galdu.

Beraz, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari hurrengo Erabakia hartu du:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua premiatzen da Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari proposatu diezaion zainzuriaren eta basanaren laborantza sartzeko Europako Batasunarekin batera finantzatzen diren ingurugiro neurriei buruzko programa berezien baitan.

Iruñean, 1997ko otsailaren 13a

Bozeramalea: Juan Cruz Alli Aranguren.

Mozioa, Ameriketako zenbait estatutan izandako Espainiako hiritarren desagertzei buruz Parlamentuak erabaki bat har dezala eskatzen duena

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, erabaki zuen «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Ameriketako zenbait estatutan izandako Espainiako hiritarren desagertzei buruz Parlamentuak erabaki bat har dezala eskatzen duen mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa

Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-egunaren bezperako eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak, Nafarroako Gorteetako Erregelamenduko 190. artikulua ezarritakoaren babesean, hurrengo Mozioa aurkezten du Giza Eskubideen Batzordean eztabaidatzeko:

1983an, Espainiako Senatuak onetsi egin zuen “Espainiako herritarrak Ameriketako estatueta desagerteari” buruzko Ikerketa Batzorde Bereziaren txostena. Txosten hartan, Ameriketako estatu batzuetan gertatu ziren jende ugariaren atxilotze eta desagertzeak “gizateriaren aurkako krimenezat” eta “Estatu terrorismotzat” jotzen ziren.

Estatu horietan demokrazia birrezarri ondoren, Zuzenbideko Estatu birrezartzen eta biktimen oroipenari eta haien senideei ordaina emateko justizi-prozedurak hasi ziren. Hala ere, indar armatuen talde boteretsuen presioek autoamnistiar buruzko legeak aldarrikatzea lortu zuten, egun bere horretan dirauen zigorgabetasuna sortuz.

Gauza jakina da izugarrikeria haren biktimen artean Espainiako herritarrak zirela eta, horien artean, Nafarroako herritarrak.

Espainiako Konstituzioak, hitzaurrean, “herritar guztiak giza eskubideak erabiltzerakoan babesteko” borondatea aldarrikatu du, eta 10. artikuluko 2. atalaren arabera, “Konstituzioak ezagutzen dituen oinarriko eskubide eta askatasunei buruzko arauak, Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsalaren eta gai horri buruz Espainiak berretsitako nazioarteko itun eta hitzarmenen arabera ulertuko dira”.

Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko 1996ko abenduaren 19ko Nazioarteko Itunak hauxe ezarri du: “Estatu itunkide bakoitzak konpromezua hartu du eskubide edo askatasunak bortxatu zaizkion pertsona orok errekurso eraginkorra ezar ahal dezan, aipatu bortxaketa zeregin ofizialetan ari ziren pertsonak egin badute ere”.

Jakina denez, gure estatuan, hain zuzen ere, Audientzia Nazionalako epaitegi zentraletan, diligenzietan ari dira Espainiako herritarren desagertzea dela eta. Prozedura horietan badira akusazioak gizateriaren aurkako krimenetan ustez erantzukizuna dutenen aurka, eta krimen horiek preskribaezinak eta amnistiaezinak dira. Frantzia,

Italia, Suedia eta Estatu Batuetako justiziek ere jarduketak burutu dituzte antzeko kasuetan.

Justiziak har ditzakeen erabakien kaltetan gabe, bidezko dirudi aldarrikatzeak Parlamentu honek aipatu eskubide-bortxaketen aurrean duen jarrera.

Hori horrela, hurrengo erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

1) Nafarroako Gorteek kontsideratzen dute Ameriketako estatu batzuetan gertatu diren giza-eskubideen bortxaketa masibo eta sistematikoak genozidiotzat baino ezin direla hartu, eta galtze edo desagertze bortxatuak, gizateriaren aurkako delitu jarraitutzat, jarduketa terrorista handituekin burutu baitira, bahiketa, hilketa, estortsio, umelapurreta eta beste delitu batzu ere erabili direlarik.

2) Kontsideratzen da Estatuak bide judiziala erabili behar duela aipatu delituen aurka, gehiengotan zigortu gabe geratu direlako, Espainiako hiru-rehundik gora herritar biktima izan direlarik. Espainiako Estatuak aritzeko ahalmena du eta aritu egin behar du, subsidiarioki, benetako justizi babesa ziurtatzeko.

3) Krimenak gertatu ziren estatuak laguntza juridiko emateari uko egiteak inolaz ere ez du oztupo izan behar Espainiako Justizia azken muturreraino heltzeko, erantzukizunak galdu eta beterazterakoan. Ondorioz, Espainiako Gobernuak erregu judizialak betetzea galdu behar du, izenpetu diren bi aldeetako hitzarmenak betetz, eta baita Hitzarmenen zuzenbideari buruzko 1969ko Vienako Hitzarmena ere, edota, bete ez diren hitzarmenak eta horiek bete ez dituzten Estatu dagozkion nazioarteko erakundeen aurrean salatu, zuzenbideko estatu batek bere esku dituen bide guztiak erabiliz.

4) Gobernua premiatzea laguntza politiko eta diplomatikoa eman diezaien prozedura judizialei, oraindik hunkituta dagoen gizartearen justizia eta egia eskariak onartu eta babestea beste helbururik ez baitute, izan ere, justizia eraginkorra izateko, egia argitzeko eta genozidioaren errudunak zigortuak ikusteko eskubidea ukatu egin baitzaio gizarteari.

Iruñean, 1997ko otsailaren 20a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco.

Mozioa, gizarte babesa zuzpertzeari eskatzen duena

ATZERA BIDLITAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Jaimen Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak aurkeztu zuen mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 1997ko otsai-

laren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Saila:
GALDERAK

Gau-eskolak helduak euskalduntzeko lanagatik jasotzen duten dirulaguntza moduluari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak gau-eskolak helduak euskalduntzeko lanagatik jasotzen duten dirulaguntza moduluari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean,

hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Helduen euskalduntzea diruz laguntzeko modulua 1991tik izoztuta dagoela jakin ondoren, zerbitzu honen jarraipen eta kalitateari kalte nabarmena egiten dionez, hauxe ere jakin nahi da:

Zenbat denbora egin du izoztuta gau-eskolek helduak euskalduntzeagatik hartzen duten dirulaguntzaren moduluak?

Moduluaren izozteari eusteko asmoa du Nafarroako Gobernuak ala, bestela, eguneratzeko asmoa du? Hala bada, zer irizpide erabiliko da eguneratzeko?

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Egulbatiko Jaurreriaren gaineko zenbait gairi buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Egulbatiko Jaurreriaren gaineko zenbait gairi buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Administrazioaren aldetik Eguesibari datxekio-larik, bada finka pribatu bat, 400 Ha. inguru hartzen duena, gaur egunera arte zaldi-azienda larratzeko baino erabili ez dena eta dituen

berezitasunengatik arrano beltz bikote baten habitat bilakatu dena, beste espezie babestu batzuk era bertan pausatu direlarik: gabiraia, aztorea, azkonarra, katajineta, ...

“Egulbatiko Jaurerria” deritzo alde horri eta jabeek etxebizitzak eta enparauak egin nahi dituzte hor.

Hori horrela jakin nahi da:

1.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipatu jarduketaren plan eta proiektuen berririk duen.

2.- Ingurugiro Departamentuak jakin dakien inguru horrek duen fauna balioa eta horri eusteko neurriak hartu behar direla.

3.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak uztargarriztat jotzen dituen alde horretako urbanizazio proiektua eta ingurua babestea, are HBB deklaratzeara.

4.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ustetan, zer neurri egokitu lirateke, fauna aberastasuna egiaztatu ondoren, aipatu ingurua babesteko?

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Errioxako Agoncillon hondakin toxiko eta arriskutsuetarako ezar litekeen hondakindegia buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Errioxako Agoncillon hondakin toxiko eta arriskutsuetarako ezar litekeen hondakindegia buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Errioxako Autonomi Elkarteko Gobernuak Errioxako Agoncillon hondakin pozoitsu eta arriskutsuen hondakindegia jartzeko asmoa agertu du. Mendaviako herritarrek eta udalak berak kezka azaldu dute eta garatzeko den proiektua zehatz-

mehatz ezagutzeko gogoia, izan ere proiektuak Mendaviari baldintza eta ondorioak ekarriko dizkio (denak ere negatiboak) eta gauza jakina da udal hori nekazaritzaren eta nekazaritzako gaiak eraldatzeko industriaren menpeko dela ekonomiaren aldetik

Hori horrela jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak ba ote duen Errioxako Autonomi Elkartek Agoncillon hondakin pozoitsu eta arriskutsuen hondakindegia jartzeko proiektuaren zehaztasunen berririk.

2.- Nafarroako Gobernuak bat datorren ala ez Mendaviako herritarrei eta udalari sortu zaien kezkekin, haien ekonomi nekazaritzako gaien izen ona eta kalitatearen menpe dagoenez kalteak jasan baititzaie.

3.- Zer neurri hartu ditu, edo zer neurri hartzeko asmoa du, Nafarroako Gobernuak Mendaviako herritarren interesak begiratzeko, proiektuak haien interes ekonomikoei, eta are gehiago, osasunari berari ekar dakizkiekeen kalteetarik?

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Lehentasunezko Ustiategiei buruzko Foru Lege proiektuaren biderapenari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Lehentasunezko Ustiategiei buruzko Foru Lege proiektuaren biderapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Aurreko Nafarroako Gobernuak 1996ko ekainean bidali zuen GKera (CESera) Lehentasunezko Ustiategiei buruzko Foru Legea. Proiektu honek hainbat onura dakar nekazarientzat zenbait ikuspegitik: zerga-onurak lekualdatzeetan, nekazari gazteak martxan hasteko laguntzak, nekazari profesionalentzako laguntzak, eta abar.

Parlamentua lege proiektu hau bideratzeko izaten ari den atzerapena, ekartzen ari da nekazari askok laguntza hauek gozatu ezin izatea. Horregatik jakin nahi da:

1.- Zergatik atzeratzen ari da lege proiektu honen biderapena?

2.- Noiz hasiko da Parlamentua berau bideratzen?

Iruñean, 1997ko otsailaren 13a

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Nekazaritza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean esnea uzteko finantzatutako Planari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean esnea uzteko finantzatutako Planari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek

ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

1996 urtean esne-ekoizpena uzteko Plan bat izan zen, Nekazaritza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren artean kofinantziaturik. Une hauetan ez dira ezagunak datu hauek: zenbat abeltzain sartu zen plan honetan, eta zenbateko ekoizpenari utzi zion.

Behi-esnea ekoitzen duten abeltzainek beste bi gauza gehiago ere jakin behar dute: kuota horiek berriz banatuko ote diren eta nola banatuko diren. Horregatik jakin nahi da:

1.- Zenbat abeltzain sartu da esne-ekoizpena uzteko Planean, utzitako ustiatzearen arabera sailkatzen zena (50.000 litro baino gutxiago, 50.000 eta 100.000 litro artean, 100.000 litro baino gehiago)

2.- Ekoizpena uzteko programan hilabete batzuk direla erosi ziren kuota noiz banatuko dira

berriz?

Iruñean, 1997ko otsailaren 13a

3.- Zer irizpide ezarriko da kuota hauek berri-
banatzeko?

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Nekazaritzako ustiategiak hobetzeko laguntzak arautzen dituen 297/92 Foru Dekretuaren aldaketari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak nekazaritzako ustiategiak hobetzeko laguntzak arautzen dituen 297/92 Foru Dekretuaren aldaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Nekazaritzako ustiategien eraginkortasuna hobetzeko laguntzak arautzen dituen 297/92 Foru

Dekretuaren aldaketak hainbat kontu garrantziko ekarri ditu, hala nola pertsona-kopurua gehitzea eskatzailea sozietate bat denean. Nekazaritza Departamentuak badaki nekazaritza arloan badi-rela inberstio-proiektuak, hilabeteak direla aldaketa hau onar dadin itxoi ten ari direnak. Bestalde, aldaketa duela urtebete prestaturik dago eta bere garaian Europako Batzordeak aurkeztu zituen zailtasunak konpondu dira.

Une hauetan, aldaketa onartu beharrean, badi-rudi berau berri z definitzen ari direla. Horregatik jakin nahi da:

1.- Nekazaritza Departamentuak asmorik al du orain urtebete prestaturiko testua onartzeko, aldaketa horren zain dauden proiektuei kalterik ez eragiteko? Edo, aitzitik, asmorik al du hasierako aldaketen onarpena atzeraraziko luketen beste hainbat aldaketa sartzeko?

2.- Noizko aurreikusten da 297/92 Dekretuaren aldaketa onartzea?

Iruñean, 1997ko otsailaren 13a

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Arrantza barrutien probetxamendurako ohiko tasari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak arrantza barrutien probetxamendurako ohiko tasari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Hilabete erdi bat falta da amurraina arrantzatzeko debekua, arrantza-barruti trinkoetan, ken dadin, eta arrantzaleen elkarteek ez dakite orain-

dik egunotan ematen diren pasa-txartel bakoitza-rengatik zenbat kobratu behar duten.

Dirudienez, Nafarroako Gobernuaren administrazio-akats bat da anabasa hau sorraraten ari dena amuarrainaren denboraldia hasi aitzin. Horregatik jakin nahi da:

1.- Zergatik ez da ezarri 1997rako Aurrekontuei buruzko Legean datorren denboraldirako

arrantza-barrutiak erabiltzeko ordaindu beharreko tasa arrunta?

2.- Pentsatu al du Gobernuak 1997rako Aurrekontu Orokorretan aldaketarik proposatzea akats hau zuzentzeko?

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Irakaskuntzarekin zerikusia duten zenbait gairi buruzko galdera (gizarte bermeko moduluak, Hezkuntzako Goi Batzarraren aldaketa eta abar)

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak irakaskuntzarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz (gizarte bermeko moduluak, Hezkuntzako Goi Batzarraren aldaketa eta abar) egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Joan diren egunetan, Nafarroako irakaskuntza publikoko sindikatuek Nafarroako Gobernuarekin

dauzkaten desadostasunen berri eman zuten, irakaskuntzaren interesekoak diren hainbat aferatan.

Halaber, irakaskuntza pribatuko sindikatuek aspaldidanik eusten diete zenbait jomugari, behin eta berriz bete gabe gelditzen direnei.

Horregatik, jakin nahi da:

1.- Noiz prestatuko ditu Nafarroako Gobernuak Gizarte Bermeko Moduluak?

2.- Noiz onartuko du Hezkuntza Goi Batzarra aldatu eta Nafarroako Eskola Kontseilu bihurtuko duen Dekretua?

3.- Noizko edukiko ditu Nafarroako Gobernuak DBHko Aniztasunari Arreta hobetzeko jarduketak prestatu?

4.- Nafarroako Gobernuak interesik al du Nafarroan irakaskuntza hitzartuko langileek bere hitzarmena izan dezaten?

5.- Nafarroako Gobernuak egutegirik egin al du irakaskuntza hitzartuko langileen soldata-homologazioa lortzeko?

Iruñean, 1997ko otsailaren 18a

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Liburutegi batzuk ixteko aurreikuspenari buruzko galdera

GREGORIO MARTINEZ EZCARAY FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak liburutegi batzuk ixteko aurreikuspenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Jakin ahal izan da gertaren bidez badirela azken urte honetan itxi diren Nafarroako Gobernuaren eta Udalen arteko hitzarmenen bitartez

antolaturiko Liburutegiak, eta badirudi aurreikusten dela 97ko ekitaldian zehar mota horretako beste hainbat ere itxiko direla. Liburutegi horiek, lehen esan den bezala, egun indarrean dagoen hitzarmen baten ondorio dira, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak dagozkion Udalekin izenpe-urikoa. Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusten al du Liburutegi gehiago ixtea, itxita daudenez gain?

2.- Nola konponduko da Nafarroako Gobernuarekin egindako hitzarmenaren menpean dauden Liburutegi itxien auzia?

3.- Ba al da funtsezko jarraibiderik Nafarroan Liburutegiak non paratu behar diren zehazteko?

4.- Beste zenbait Autonomi Elkartetako liburutegi/biztanleko ratioa gurea baino txikiagoa dela jakinik, eutsiko al dio Nafarroak beste zenbait Autonomi Elkartetakoa baino handiagoa den ratio horri?

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Foru Parlamentaria: Gregorio Martínez Ezcaray

Egiten ari diren ezpel adarren baso garbiketei buruzko galdera

PEDRO URIZ LANZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egiten ari diren ezpel adarren baso garbiketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Alemaniar enpresa bat egiten ari da, azken hilabete hauetan, baso-garbiketak, eta milaka kilo ezpel adar ateratzen ere Ezkaba menditik. Adar hauen azken helburua Alemania da, non koroa apaingarriak egiten eta saltzen baitira hileta-elizkizunetarako. Foru Gobernuak eman omen du garbiketa hauek egiteko baimena. Baldin eta Ingurugiro Departamentuko Natura Babesteko Zerbitzuaren eginkizuna bada ezein jarduketak fauna eta flora ez kaltetzea, jakin nahi da:

1.- Ba al du Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko basoetan egiten ari diren ezpel adarren garbiketaren berri?

2.- Ingurugiro Departamentuak bere baimena ematen du garbiketa hau egiteko, enpresa pribatuaren mesederako izanik ere?

3.- Non egiten ari da garbiketa hori?

4.- Nafarroako Gobernuak behartzen al ditu enpresak, hauek eragiten dituzten ingurugiro kalteak hala edo nola konpontzera?

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Foru Parlamentaria: Pedro Uriz Lanz

Nafarroaren eta Akitaniaren arteko bi aldeko batzordearen sorkuntzari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Nafarroaren eta Akitaniaren arteko bi aldeko batzordearen sorkuntzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Azken egunetan, Nafarroako Gobernuo Lehendakariak bilera bat eduki zuen Bordelen, Akitaniako Eskualdeko Kontseiluko Lehendakariarekin, bi herrialdeentzat interesgarriak diren zenbait aferari buruz mintzatzeko.

Nafarroako Gobernuo Lehendakariak aurkezten diren proiektuak aztertu eta sakonduko dituen alde biko batzorde bat sortzeaz hitz egin zuen, eta zehatz esanda, lur bidezko bi komunikazio hauei buruz, hots, Iruñea-Baiona ardatza eta Oronotz-Mugairi bikoiztea, aztertzea eta sakontzea.

Honi buruz, honako hauek jakin nahi dira:

1.- Noiz sortuko da Nafarroa-Akitania alde biko batzordea?

2.- Nortzuk eta zer erakunderen izenean osatuko dute aipatu batzordea?

3.- Zer jardun-irizpide edukiko ditu batzorde horrek?

4.- Batzorde hori Nafarroa, Akitania eta Euskal Autonomi Erkidegoaren arteko Lankidetzako Protokoloaren barruan sartzen da, ala, aitzitik, beste harreman-esparru bat sorrarazten du?

5.- Iruñea-Baiona komunikazio ardatza ahalezko egingo duen Oronotz-Mugairiko bikoiztea, Otsondotik edo eta Endarlatsatik joango da?

Iruñean, 1997ko otsailaren 17a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezáun

Gure Komunitatean arrantza arautzen duen ohiko tasari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak gure Komunitatean arrantza arautzen duen ohiko tasari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Martxoaren 1ean hasiko da amuarrain arrunta arrantatzeko epea, 1997 urtean zehar arrantza Nafarroan arautzen duen Foru Aginduak ezartzen dituen arrantza-barruti trinkoetan.

Berriki Arrantza Aholkularitza Batzordeak erabaki zuen baimen arruntarengatik ordaintzen den tasa erdira jaitea. Tasa hau 2.000 pezeta zen barruti intentsiboetan. Erabaki honen alde sei boto eman ziren, bost aurka eta abstentzio bat ere izan zen.

Otsailaren erdi aldean, 15 egun eskas baizik gelditzen ez direnean amuarraina arrantza has dadin arrantza-barruti trinkotzat jotako zatietan, honako hau gertatzen ari da: Badira pasa-txartelak Arrantza Aholkularitza Batzordean erabakitakoaren arabera 1.000 pezetatan zozketatu diren elkarteak, eta badira pasa-txartelen zozketa gelditurik daukaten elkarteak, itxoiten ari direlako 1996

urtean ezarri zen 2.000 pezetatoko tasa arrunta oraindik indarrean dagoela baieztatuko dela.

Afera honek sortu duen nahasmenduak ekar lezake ezarritako arautegia era ezberdinean aplikatzea.

Tasa honen inguruan, ondorengo galdera hauen erantzuna jakin nahi da:

1.- Arrantza gure Komunitatean eta 1.997 urtean arautzen duen berezko arautegiak zenbatetan ezartzen du arrantzan egiteko baimena emateko tasa arrunta?

2.- Zer lege-ulerkuntzak eraman ditu elkarteak ezarritako arautegia irizpide ezberdinez ulertzera?

3.- Nafarroako Gobernuaren ustez, zer neurri hartu beharko dira barruti guztietan tasa arrunta bera aplikatu dadin?

4.- Zer tasa arrunta ezarri behar dute Arrantza-leen Elkarteek, hauek zenbatekoak izango diren argitzeko dauden zalantzak eta ulerkuntzak ebazten ez diren artean?

Iruñean, 1997ko otsailaren 18a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ezpel mozketarako dagoen arauteriari buruzko galdera*JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ezpel mozketarako dagoen arauteriari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Ezpele gure Komunitatean oso zabaldua dagoen landarea da, pagodi, pinudi, harizti eta ameztietako oihanpeetan egon ohi da eta ez du babes-erregimen berezirik behar.

Ohiko jarduna da Mintegiek eta Lorazaintzako Biltegiak ezpeldoietatik lortzea euren lanetarako behar duten landarea, normalean moztu nahi den tokiko alkateari baimena eskatzen zaio eta ondoren atera, zamatuta eta garraiatu egiten da.

Urteak aurrera ahala, gero eta gehiago dira Nafarroako hainbat tokitan ezpele moztu duten lorazaintza-enpresak eta mintegizainak; hortaz, mozketak gero eta maizago gertatzen dira eta gero eta trinkoagoak dira. Landare hau apaingarriko helburuarekin moztu eta ustiatzeak etekinak ekartzen dizkie jarduera honetan dabiltzan enpresei.

Jarduera hau, behar bezala antolatuz egiten bada, onuragarria izan daiteke zenbait mendi

jakin garbitzeko orduan; bestela ere, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamedu eta Etxebizitza Departamentuaren kontrolpean egin ohi dira garbiketok, jarduketa flora eta faunarentzat kaltegarria gerta ez dadin.

Hau dela eta, ondorengo hauen gaineko argibiderik jakin nahi da:

1.- Zer arategiren menpean aritu behar dute Udalek Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari mozketa hauek egiteko baimena eskatzeko?

2.- Egin al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Udal batek edo enpresa batek eskatutako ezpel mozketaren baten gainbegiraketarik? Zertan gauzatu da aipatu gainberaketa hori?

3.- Egin al du inoiz Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak

honelako jarduketaren bat bere baliabideez? Kontratatu al dio inoiz Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak enpresa pribatu bati honelako jarduketarik? Zer helbururekin?

4.- Uste al du Nafarroako Gobernuak komenigarria dela berezko arategirik ezartzea, landare hau eta antzerako beste batzuk zer balidintzatan moztu eta saldu behar diren baimentzeko, flora eta faunarentzat kalterik ekarriko ez duen arazoizko ustiapena bermatzeko, kontrolik gabeko jarduketak saihesteko eta zenbaitetan Toki Entitateek hain beharrezkoak dituzten dirusarrerak bereganatzeko?

Iruñean, 1997ko otsailaren 18a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Euskaltegi publiko eta pribatuetako ikasle kopuruari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak euskaltegi publiko eta pribatuetako ikasle kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– 1996ko urtean zehar Nafarroako euskaltegi publiko zein pribatuetan izan diren ikasleen kopu-

ria. Zehatz bitez euskaltegika, hiruhilabeteka eta mailaka.

– 1996ko urtean zentro publiko eta pribatuetan emandako ordu kopurua, guztira. Bereiz bedi diruz lagundutako zentroe 1996an zehar ordaindu zitzairen ikasle/orduko prezioa.

– Alderik gertatu al zen 1996rako aurrekontu-kontsignazioaren eta guztizko kopuruaren artean, emandako ordua/ikaslea kalkulatu ondoren? Zeintzuk? Zenbat?

– Kontusaila gutxiago bazen, nola konpondu zen? Zentroe irdaindu al zitzairen?

– Ordaindu ez bazitzairen, zein da ordaintzeke dagoen "zorra"?

– Hezkuntza Kontseilaritzak ba al du azkeneko sei urteotan indarrean egon den egungo ikasle/orduko kostua aldatzeko asmorik?

Iruñean, 1997ko otsailaren 18a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Helduak alfabetatu eta euskalduntzeko ikastegi publikoen kostuari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak helduak alfabetatu eta euskalduntzeko ikastegi publikoen kostuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru

Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Nafarroako Gobernuaren menpeko alfabetatze eta euskalduntze zentro publikoetako ordua/ikaslea kostua.

– Gobernuaren menpe diren zentro horietan zenbat pertsona euskaldundu diren, guztira.

– Onartu ez diren eskariak eta horretarako zioak, azken hiru urteotan.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Vianako eta Tuterako ikastolen legeztapenari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Vianako eta Tuterako ikastolen legeztapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru

Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

– Tutera eta Vianako ikastolak legeztatze espedientea zertan den egun.

– Hezkuntza Departamentuko zerbitzu teknikoek gaur egunera arte eman dituzten txosten teknikoak legeztatze horiei buruz.

– Zer pausu geratzen diren behin betiko legeztatzeraino.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Joan den urtarrilean langabeziak izandako igoeraren arrazoei buruzko galdera

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, Fermín Ciáurritz Gómez Foru Parlamentari jaunak joan den urtarrilean langabeziak izandako igoeraren arrazoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Fermín Ciáurritz Gómezek, "Eusko Alkartasuna-Askotariko" Parlamentari Taldeari atxikitako

Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako urtarrileko langabezia zenbakien berri izan ondoren, badirudi kezkatzeko moduan hazi direla.

Beraz, hurrengo galderak egiten ditut:

– Langabetuen kopurua neurri gabe hazteko arrazoiak.

– Alorrik ukituenak.

– Nafarroako Gobernuak egoerari aurre egiteko dituen planak.

Iruñean, 1997ko otsailaren 18a

Foru Parlamentaria: Fermín Ciáurritz Gómez

Garraiolarien grebaren eraginagatik izandako enplegu erregulazioaren eskaerei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak garraiolarien grebaren eraginagatik izandako enplegu erregulazioaren eskaerei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Gure Komunitateak garraio-greba baten hasierak jasan du, aurretik iragarrita zegoena. Estatu

osoan otsailaren 3an deitu bazen ere, joan den otsailaren 9tik aitzina izan zituen ondorio ofizialak gure Komunitatean.

Fedatransek eta Madrilgo Lanuzteko Batzorde barruan ziren garraiolarien beste erakunde batzuek, aipatu batzordea grebaren hasieran sortu baitzen, greba bertan behera utzi zutenean atzo, 1997ko otsailak 19, Nafarroako merkataritza gaien garraiolarien elkarteak (TRADINSAK) erabakita, kideei gomendatu zitzaizen ohiko jardunera itzuli zitezten aipatu greba eraginik gabe utzita. Beraz, grebak 10 egun iraun du gure Komunitatean.

Zenbait enpresak Nafarroako Gobernuari eskatu dio enplegua erregulatzeko espedienteak ireki eta onartzea, garraioen grebak ziharduten ekoizpen prozesuan izan duen eraginagatik.

Nafarroako Gobernuak aipatu espedienteak ebazteak enpresei baimena ematea dakar, egoki iritzitako langileen kontratuak eten ditzan. Gobernuak erregulaziorako baimena eman ondoren, langileek, aldiz, langabeziaren prestazioak eska-

tzeko aukera dute, indarreko legeria aplikatzearen ondorioz.

Enpresek "ezinbestean" oinarritzen badute enplegu erregulaziorako eskaria, eta Nafarroako Gobernuak hala onartzen badu, espedientea 5 eguneko epean ebatzi behar du, legeak hala eskatzen duelako. "Ezinbestea" onartzen ez bada, espedienteak ebazteko epea 30 egunekoa da eta Nafarroako Gobernuak kontsulta egin behar die aipatu espedienteak eskatu duten enpresetako batzordeei eta sindikatuei.

Erregulazioaren ondorioak kaltegarri direla irizita, enpresetako langileentzat, pilatutako langabezi prestazioei eragiten dieten neurrian, aldi baterako langileentzat edo behin-behineko kontratuak dituztenentzat, eta baita erretiroa hurbil duten haientzat ere, hurrengo galderei erantzutea eskatzen da:

1.- Nafarroako enpresek enplegua erregulatze-ko zenbat espediente eskatu dituzte, garraioaren grebak haien ekoizpen prozesuan izandako eraginean oinarrituta? Zenbat onartu ditu Nafarroako Gobernuak? Zer zio aurkeztu dute enpresek erre-

gulazioa eskatzeko? Zenbat langile ukitu dituzte aipatu espedienteek? Enpresa bakoitzaren plantila osoa ukitu al dute? Horiei erantzuna emateko eskatzen dira: Aurkeztu diren espedienteen zerrenda, eskariaren eguna, enpresak alegatutako zioa, plantilako langile kopurua eta kontratu motak, erregulazioak ukitu duen langile kopurua eta kontratu motak, Nafarroako Gobernuak onetsi dituen espedienteak, onetsitako espedienteetan enplegu erregulazioak zenbat iraun behar zuen, eta erregulazioa gauzatu duten enpresen zerrenda.

2- Aurreko galderan aipatu espedienteetarik zenbat deuseztatu dira garraio greba bukatu ondoren, zein egunetan?

3.- Nafarroako Gobernuak baloraziorik egin al du jakin ahal izateko ebatzi dituen enplegu-erregulazio espedienteetan baimendu duen eta Enplegu Institutu Nazionalak ordaindu behar duen kopurua?

Iruñean, 1997ko otsailaren 20a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Espetxeko gizarte zerbitzuen transferentziari buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak espetxeko gizarte zerbitzuen transferentziari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dute-

naren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Nafarroari transferentzia gehiago emango zaizkiolako iritsi zaigu, eta horien barruan Justizia eta Espetxeetako Institutuen mailan zerbitzu berriak eskualdutuko omen dira. Hori horrela, beharrezkoa ikusten dugu Nafarroako Gobernuak ondorengo puntu hauek agitzea:

1. Justizia mailako transferentzien kasuan, nola egituratuko dira Nafarroako Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak?

2. Eskararik jaso al da Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak inon paratzeko? Zer urrats egin dira?

Iruñean, 1997ko otsailaren 21a

Foru Parlamentaria: Isabel Arboniés

Aldarrikatu diren lekune naturalen babespeneko bazter-eremuen arautze-ari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aldarrikatu diren lekune naturalen babespeneko bazter-eremuen arautze-ari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengok ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Nafarroako Gobernuak, irailaren 2ko 307/1996 Foru Dekretuaren bidez, zenbait Erreserba Integral eta Natur Erreserbaren babespeneko bazter-eremuen zedarriztapen grafikoa onetsi zuen. Erreserba hauek apirilaren 10eko 6/1987 Foru Legeak aldarrikatzen zituenak dira, ekainaren 17ko Nafarroako Naturguneei buruzko 9/1996 Foru Legeko eraskinean zehazten zirenak.

Foru Dekretu honek aipatu Naturguneei buruzko Legeko Bigarren Xedapen Iragankorreko 2. zenbakiak ezartzen zuena bete zuen.

Bigarren Xedapen Iragankorrek, bere 3. zenbakian, sei hilabeteko epea ematen dio Nafarroako Gobernuari Foru Dekretuaren bidez grafikoki zedarriztako aldarrikatu diren lekune naturalen babespeneko bazter-eremua, hauek horrelakorik behar dutenean.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipatu babespeneko bazter-eremuak zedarrizten dituen Foru Dekretuaren aurreproiektua prestatu zuen, eta joan den 1996ko azaroaren 15ean, Nafarroako Gobernuaren Prentsa Bulegoak bidali zuen ohar batean, babespeneko eremuak zedarriztako orduan aintzat harturiko irizpideen berri ematen zen. Hala ere, ondoren aipatzen diren Lekune Naturalen kasuan babespeneko bazter-eremua zedarriztako orduan aintzat harturiko irizpide espezifikoak aipa-

tzen ziren: Odiako pagodia (Erroibar), Ugarroneko potxea (Aintzinoa), Leringo pinudiak (Lerin), Santa Aguedako pinudia (Mélida), Grangafriako ibarbasa (Milagro), Campoallendeko ibarbasa (Cáse-da), Lopez-Valeko ibarbasa (Santacara), La Recuejako ibarbasa (Murillo el Cuende), Badina Escudera (Alesbes), Murillo de las Limasko ibarbasa (Valtierra-Tutera), Traslapuenteko ibarbasa (Tutera), La Mejana de Santa Isabel (Cortes), Campollano (Zarrakaztelu), Valporrés-Soto Bajo (Murillo el Cuende-Mélida), Arradako ibarbasa (Murillo el Cuende), Dos Reinosko aintzira (Figarol-Zarrakaztelu), Bionako ibarbasa (Zarrakaztelu), Escualgo ibarbasa (Santacara-Murillo el Fruto), Sequero ibarbasa (Mélida), Artikako ibarbasa (Santacara), Arenalesko ibarbasa (Mélida-Santacara), Mugako ibarbasa (Azkoien), Santa Eulaliako ibarbasa (Azkoien), Soto Alto (Valtierra), Giraldeko ibarbasa (Castejón) eta Morako ibarbasa (Buñuel-Cortes)

Aipatu ohar hartan iragartzen zen Foru Agindu bat izenpetuko zela, eta agindu horren bidez Nafarroako Gobernuak gai hauek arautzen dituen Foru Dekretuaren aurreproiektua jendartera zabalduko zuela. Horri buruz, ondorengo galdera hauek erantzun daitezke nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak asmorik al du lekune naturalen babespeneko bazter-eremuei buruzko proiektua onartzeko? Noiz onartuko du Nafarroako Gobernuak aipatu proiektua?

2.- Noiz eta zer epetan zabaldu zen jendaurrera lekune naturalen babespeneko bazter-eremuei buruzko proiektua? Noiz bukatuko da edo bukatu da aipatu jendaurrera zabaltze hori?

3.- Jendaurrera zabaltzeko epea bukatu bada, zein eta zenbat alegazio egin dira jendaurreko zabaltzen horretan? Zer zioten?

4.- Nafarroako Gobernuak erantzun al ditu aurreko atalean aipatzen diren alegazioak? Zein da horietako bakoitzari eman zaion erantzuna?

5.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ustez, Nafarroako Gobernuak azkenik onartuko duen Foru Dekretuan aipatzen ari garen alegazio horietako zeintzuk sartuko dira?

6.- Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak proiektuari buruzko txostenik egin al du? Zein izan da erakunde honen iritzia?

7.- Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa bada: zehazki, zer aldaketa sartu dira hasierako proiektuan Nafarroako Ingurugiro Kontseiluarekin kontsultatu eta gero? Zer arrazoi izan da onartu diren aldaketak onartzeko?

Iruñean, 1997ko otsailaren 21a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Babesturik edo arriskuan dagoen florari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak babesturik edo arriskuan dagoen florari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoez ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Nafarroako Parlamentuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordearen aurrean bere Departamentuaren jarduketa-ildoak aurkezteko egin zuen agerraldian arriskuan dagoen florari buruzko Katalogoa aipatu zuen. Berau jendaurrera zabaldurik zen abuztuaren 23ko 892/1996 Foru Aginduaren bidez.

Ondoren, irailaren 30eko 19/1996 Foru Aginduaren bidez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak jendaurrera zabaltzeko epea luzeagotu egin zuen, arriskuan dagoen florari buruzko Katalogoa horretan interesik zeukatenean parte hartze handiagoa eta eragin-korragoa eduki zezaten.

Jendaurrera zabaltzeko tramitea bukatu denetik lau hilabete igaro direlarik, Nafarroako Gobernuak ez du oraindik Nafarroan arriskuan dagoen florari buruzko Katalogoa onetsi. Hori horrela, ondorengo galdera hauen erantzuna jakin nahi da:

1.- Asmorik al du Nafarroako Gobernuak Nafarroan arriskuan dagoen florari buruzko Katalogoa onestea? Noiz onetsiko du Nafarroako Gobernuak aipatu katalogoa?

2.- Zer arrazoi dela tarteko ez da oraino aipatu katalogoa onetsi?

3.- Jendaurrera zabaltzeko epea bukatu bada, zein eta zenbat alegazio egin dira jendaurreko zabaltzen horretan? Zer zioten?

4.- Nafarroako Gobernuak erantzun al ditu aurreko atalean aipatzen diren alegazioak? Zein da horietako bakoitzari eman zaion erantzuna?

5.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ustez, Nafarroako Gobernuak azkenik onartuko duen Foru Dekretuan aipatzen ari garen alegazio horietako zeintzuk sartuko dira?

6.- Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak proiektuari buruzko txostenik egin al du? Zein izan da erakunde honen iritzia?

7.- Aurreko galderaren erantzuna baiezkoa bada: zehazki, zer aldaketa sartu dira hasierako proiektuan Nafarroako Ingurugiro Kontseiluarekin kontsultatu eta gero? Zer arrazoi izan da onartu diren aldaketak onartzeko?

Iruñean, 1997ko otsailaren 21a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Iruñerrietik barna iragaten denerako burdinbidea eta abiadura handiko trena ezartzeko lur-erreserbarako planari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iruñerrietik barna iragaten denerako burdinbidea eta abiadura handiko trena ezartzeko lur-erreserbarako planari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutenaren babesean, honako galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten.

Ministroen Kontseiluak 1994ko martxoan onartu zuen Azpiegituren Plan Zuzentzaileak (1993-2007) biltzen du bere baitan “Nafarroako pasabidea” deitzen duena abiadura handiko etorkizuneko sarearen barruan. Pasabide honen garapena Madril-Zaragoza-Bartzelona abiadura handiko ardatzaren eraikuntzak baldintzatzen du.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroatik eta Iruñetik abiadura handiko trena pasatzea erabilgarritasun publikokoa eta gizarte interesekoa zela ustez, 1996ko irailaren 2ko erabakiaren bidez onartu zuen Abiadura Handiko Trena Iruñerrietik igarotzeko tren instalazioak eraikitzekeo lurrak erreserbatzeko plana, Noiango ubidearen eta Zuastiren artean, udalez gaidiko eragina duen plan sektorialtzat hartzea.

Plan honen asmoa, bertan dauden agiriak ikusirik, hauxe da: lurraldearen antolamendua eta etorkizuneko trazaduraren bideragarritasuna elkarrekin bat etor daitezten, hau da, abiadura handiko burdinbide, bidaiarientzako geltoki eta honekin loturiko azpiegiturak eta lurraldearen antolamendua elkarrekin bat etor daitezten.

Ondoren, eta Planari jendaurrera zabaltzeko garaian aurkeztu zitzaizkion alegazioak ebatzi eta gero, Gobernuaren 1997ko urtarrilaren 7ko erabakiak behin betiko onartu zuen udalez gaidiko

plan sektoriala, lehen aipatu lurrak erreserbatu ahal izateko. lur-erreserba honek bermatzen ahal du azkenean abiadura handiko trena paratzea erabakitzen bada, paratu egingo dela.

Lur-erreserba honekin loturiko galdera hauen erantzuna jakin nahi dugu:

1.- Zer lanetan oinarritzen da onartu den lur-erreserba? Zer maila du aipatu lanak (proiektua, aurreproiektua, oinarritzko azterketa, aurretiazko txostena...)? Noiz prestatu zen? Erreserbatu beharreko lurrak zedarrizteko balio izan duten azpiegituren eta trazaduraren planoek zer eskala grafikotan daude?

2.- Zer azalera egiten du egin den lur-erreserba? Zeintzuk ziren lur hauen erabilerak eta erabilpen-mugak lur-erreserba egin baino lehen? Zein erabilpen-muga ezartzen da (etxegintza, eraikuntza...) erreserbatutako lurren gainean? Behin-behineko erabilpen-muga da, edo behin betikoa?

3.- Zer fasetan dago Nafarroako abiadura handiko pasabideko trazadura azterketaren prestakuntza, Sustapen Ministerioko Trenbide eta Errepideen bidezko Garraiorako Zuzendaritza Nagusia Nafarroako Gobernuaren Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren laguntzarekin egiten ari dena? Noiz egongo da erabat prestatu-rik?

4.- Alternatiben azterketa eta horietako bat behin betiko aukertuz gero, noizko egongo da erabat prestatu-rik trenbidea eraikitzekeo proiektu behin betikoa? Egingo al da orduan egun erreserbatu-rik dauden lurren gaineko inolako aldaketarik?

5.- Gaur egun Nafarroako pasabidearentzat dagoen trazadurarekin: litekeena al da, hortik zehar, behin betiko trazadura egitea galaraz lezakeen jarduketarik egitea, edo eta pasabide horrek zeharkatuko dituen lurren balioa gehiagotu lezakeen jarduketarik egitea?

6.- Baldin eta lurrak erreserbatzeko udalez gaidiko plan sektorialaren espedienteak ez badu lur hauen berehalako besterentzea proposatzen, baizik eta lur hauek erregulatzea, etorkizunean bai trenbide pasabidea nola abiadura handiko trena ere egin ahal izateko: zergatik egin da lur-erreserba Iruñerrian bakarrik, eta ez da inolako

lur-erreserbarik egin trenbide honek gure komunitatean edukiko duen trazadura guztian zehar?

7.- Zer aukera daude abiadura handiko tren baten instalazioaren eraikuntza proiektuko trazadura aldatzeko trazaduraren oinarritzko proiektua

onartzen denetik lur erreserbatuetan aurreikusten diren instalazioen obrak burutzen diren arte?

Iruñean, 1997ko otsailaren 21a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ehiza hesi eta itxituren kenketari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko otsailaren 24an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ehiza hesi eta itxituren kenketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Naturguneei buruzko Foru Legeak, Nafarroako Parlamentuak 1996ko ekainaren 11n egindako Osoko Bilkuran onetsi zen hark, bere bosgarren xedapen gehigarrian, espreski debekatu ditu gure Komunitatean ehiza hesi eta itxiturak, ingurugiroari eragiten dizkioten kalteengatik.

Aipatu Foru Legeak antolamendutik kanpoko-tzat jotzen ditu, hirigintza-legeriaren ondorioetarako, Legea onartu zen garaian zeuden ehiza hesi eta itxiturak.

Nafarroako Naturguneei buruzko Foru Lege berak, bere bosgarren xedapen gehigarriko 3. zenbakian, sei hilabeteko epea eman zion Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariari, Legeak edo hori guztia baimentzen duten baldintzek esaten dutenarekin bat ez datozen ehiza hesi eta itxiturak kentzeko beharreko diren jarduketek ekiteko.

Beste alde batetik, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren

5eko 2/1993 Foru Legeak, bere 36. artikuluan hauxe ezarri du, hitzez hitz: "Nekazaritzako lurretako itxitura eta hesiak eraikitzean, kontuan hartuko da ez dituztela oztopatu behar aprobetxamendurako ez den basa-faunaren igarobideak".

Ba omen dira ehiza hesi eta itxiturak dela bi urte ezarri zituzten bi ehiza-barruti, "Peñako ehiza barrutia" eta "Sarriako ehiza barrutia" direlakoak.

Hesi eta itxitura horiei buruz jakin nahi da:

1.- Nafarroan izanik, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak dakizkien ehiza hesi edo itxituren zerrenda, baita zer baldintzatan eman zitzaizen baimena, halakorik bada. Horietarako bakoitzerako jakin nahi da: Inguruaren izena, zer udalerritan dagoen, titularra nor den, guztizko azalera eta baimena emateko baldintzak.

2.- Lehen aipatu den indarreko legeriaren arabera, legez kanpo dauden hesi edo itxituren zerrenda, legez kanpo izateko arrazoiak aipatuz.

3.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aipatu titularrengana jo al du hesiak edo itxiturak ken dituzaten? Baiezkoan, aipa bitez bakoitzarendako: titularri noiz egin zaion gaztigua, emandako epea, eta hasitako espedienteak edo tramitatzen ari direnak egun zer egoeratan dauden.

4.- Aurreko galderen erantzunetan aipatu diren esparru edo itxiturez ari garela, ehiza itxiturak kentzeko epea igaro al da? Zeinetan? Noiztik? Zer jarduketa administratibo burutu du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak horietako bakoitzean?

5.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak aurreikusi al du Foru Komunitateko Administrazioak bere kabuz kentzea aipatu ehiza hesi edo itxituretarikoren bat, basa fauna eta haren habitatak babestu eta kude-

atzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legeko 37. artikuluko 2. zenbakiak dioena erabiltz?

6.- Foru Komunitateko Administrazioak ehiza hesi edo itxituren bata kentzeko jarduketarik egin

baldin badu, zein izan da horietako bakoitza kentzeko lanen kostua? Nork ordaindu ditu kostuok?

Iruñean, 1997ko otsailaren 21a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeko kidea den Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren babesean dauden nerabeei buruz buruz egin duen eta idatziz erantzun behar den galdera dela eta, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak ondoko erantzun hau jakinarazi nahi du:

1. Nafarroako Gobernuak zenbat nerabe ditu egun bere babespean hartuta?

Galderak “nerabe” terminoa erabiltzen du. Kontzeptu hau psikologiaren barruan erabiltzen da, eta pertsonaren bilkaeraren adin kronologikoarekin guztiz baliokide ez den aldi bat definitzeko balio du. Aldi honek 12 eta 18 urte arteko epea harrapatu ohi du. Hala ere, askotan erabiltzen da “adin txikiko” (0 eta 18 urte artean) termino orokorraren ordezkotzat.

Galderari behar bezalako erantzuna emateko xedez Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak adin txikikoen babesa eta zuzenketa eskumenak erabiliz atenditu dituen adin txikikoei buruzko datu orokorrak gaineratzen dira. Galdegilearen nahia datu hauek adinaren arabera ikustea balitz, laburpen bat emango genuke, adin-tarte jakin bateko

zenbat adin txikiko atenditu diren programa bakoitzean adieraziko lukeena.

“Babespena” terminoa ere erabiltzen da. Urtarrilaren 15eko 1/96 Lege Organikoak, Adin Txikikoari Babes Juridikoa emateari buruzkoak, bi babes mota bereizten ditu:

– Familiaren babesa: hau da, adin txikikoa familia batean sartzen da (berea ez dena, noski), zentroan sartuta egon beharrean.

– Babes egoiliarra: adin txikikoa egoitza instituzional batean sartzen da.

Galderak batez ere babes egoiliarra hartzen du aintzat, eta erantzunean horri lotuko gatzazkio bereziki, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak aurrera eramaten duen Familiaren Babesarako Programari buruzko datuak zein beste baliabide batzuen bidez (Familia Hezkuntza) atenditu diren adin txikikoei buruzko datuak ere emanez.

Galderaren erantzuna osatzeko, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak egoitzetan, direla kudeaketa berekikoak, direla kudeaketa hitzartuak, atenditu dituen adin txikikoen kopuru osoari buruzko datuak emango ditugu.

Familiaren babesa

– Familietan hartutako adin txikikoak (berea ez dena) 167

Babes egoiliarra

– Egoitza berekiak (bi egoitza, bakoitzak hamar tokitako bi modulo dituelarik, Atarrabian eta Barañainen):

Tokiak, denetara 40

Gaur egun beteak 31

– Babesteko egoitza hitzartuak (zailtasun sozialak dituzten adin txikikoentzako atentzioa):

<i>* Asociación Navarra Nuevo Futuro:</i>		<u>Babes egoliarraren laburpena</u>	
Hitzarturiko tokiak, denetara, 10 etxe funtzionaletan	74	– Tokiak guztira, berekiak zein hitzartuak	235
Gaur egun beteak	59	– Gaur egun zentroetan babestutako adin txikikoak	197
<i>* Asociación Mensajeros de la Paz:</i>		<u>Beste hainbat programa</u>	
Hizartutako tokiak, 7 pisutan	38	– Familia Hezkuntza	
Gaur egun beteak	36	Atendituriko familiak	12
Behaketa eta Harrera Zentroetan hizartutako tokiak (0 eta 6 urte artean)	8	Atendituriko adin txikikoak	26
Gaur egun beteak, BHZn	2	2. Zenbat pisu eta pertsona gazteok zaintze- ko?	
<i>* Beste hainbat babes-zentro (hizartutako egonaldiak):</i>		Zenbat pisu dagoen aurreko erantzunetik atera daitekeena da, eta horrela laburbilduko dugu:	
Residencia la Providencia	24	– Etxe funtzionaleko pisuak	27
Aspace	1	– Gazteentzako egoitzak	3
Xátivako (Valentzia)		Gazteak zaintzen diharduten langileak honela saikatu ditugu:	
Colegio la Encarnación	1	– Adin txikikoekin harreman zuzenean dauden langile hezleak	76
Andéraz-eko MM. Escolapias	1	– Langile laguntzaileak (garbiketa eta zerbitzuak)	22
Madrilgo MM. Reparadoras	4	– Talde Laguntzaile Teknikoko langileak	17
Iruñeko MM Adoratrices	2	Zenbait zentro hitzartutan bada bere boronda- tez laguntzen duen jendea eta Ordezko Gizarte Zerbitzua egiten ari diren gazteak.	
– Erreformatarako zentro hitzartuak (istilu sozialak dituzten adin txikikoen atentzioa) (Dauden zen- tro guztiak hitzartuak dira, berekirik ez dagoela- rik):		3.- Zenbat da nerabe bakoitzeko gutxi gorabe- herako gastua?	
<i>* Residencia Juvenil Lagun Etxea:</i>		2.300.000 pezeta.	
Hizartutako tokian, egoitzan	18	Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut argitara eman dadin	
Gaur egun beteak, egoitzan	17	Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a	
Hizartutako tokiak, denetara, BHZn	6	Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseila- ria: Calixto Ayesa Dianda	
Gaur egun beteak, BHZn	0		
<i>* Granja Escuela Haritz Berri (Ilundain):</i>			
Hizartutako tokiak, guztira	10		
Gaur egun beteak	9		
<i>* Asociación Sin Fronteras:</i>			
Hizartutako tokiak, guztira	17		
Gaur egun beteak	10		

Iruñea-Lizarra N-111 errepideko 12-13 kilometroen arteko eskubiko bazterbidearen egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa beteez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Iruñea-Lizarra N-111 errepideko 12-13 kilometroen arteko eskubiko bazterbidearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urtarrilaren 7ko 2 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 8a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, hau izenpetzen duenak, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak

Iruñea-Logroño N-111 errepideko hartxintxarrari buruz eginiko galderari dagokionez, zuri erantzun hau igortzen dizu.

1. Bai, Nafarroako Gobernuak badu asmoa Iruñea-Lizarra N-111 errepideko 12-13 kilometroen arteko eskubiko bazterbideko hartxintxarra, ahuntzarria edo dena delakoa kentzeko.

Zaintze eta Kudeaketa Teknologikoaren Zerbitzuko langileek eginiko bisitan, ez da inguruan hartxintxarrik somatu. Inoiz izan bada, bertatik zihoan kamioiren batek galdu duelako edo izan daiteke. Hori gertatzen denean, garbitu egiten da.

Hau jakinarazten dizut, Parlamentuko Erregelamenduko 181. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 15a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--